

# Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 25a / 738. zenbakia

GIZARTEA/ Gabonetako kanpaina

## Gabonetarako sari erakargarriak prestatu ditu Ibai Arte merkatarien elkarteak

UBANE MADERA

Herriko bezeroak saritzeko eta merkataritza promozionatzeko asmoarekin Gabonetako kanpaina bultzatu du Ibai Artek. Gainera, aurten ahalegin berezia egin du eta bestetan baino sari handiagoak prestatu ditu. Esaterako, lehenengo saria itsas bidaiata bat da.

Itsas bidaiata hori Mediterraneoan zehar izango da, Eroski bidaiata agentziaren eskutik: Bartzelona-Florentzia-Erroma-Napoli-Tunisia-Malta eta Bartzelona da oparitutako duten ibilbidea.

Horrez gainera, bigarren sari moduan 500 euroko erosketa txartela emango du Ibai Artek, elkarteak kide diren saltokietan gastatzeko.

Eta hirugarren saria ere prestatu dute: Gatzagako Gaztainuzketako txaboletan asteburu bateko egonaldia.

Hala jakinarazi digu Mankomunitateko Merkataritzako Kabineteak kide den eta kanpainako koordinazioaz arduratzen den Oihana Barrutiak.

### TXARTELAK URTARRILAREN 7RA ARTE

Hark esan digunez, Ibai Arteren zozketan parte hartzeko txartel batzuk bete beharko dira. Txartel horiek Ibai Arteko saltokietan eskura daitezke, erosketak egitean saltzaileak emanda. Dagoeneko hasi dira txartelak oparitzen. Hain zuzen ere, urtarrilaren 7ra arte izango da txartelak eskuratzeko astia, urtarrilaren 7an egingo dute-eta oparieren zozketa.



MIKEL LUPIANEZ

Arrasateko saltokietan hasi dira dagoeneko txartelak oparitzen; argazkian Bea lentzeria denda.

### INKESTAK EGINGO DITUZTE

Halaber, Oihana Barrutiak esan digu txartelekin batera galderatxo batzuk egingo dizkietela bezeroei. Ibai Arteren asmoa honakoa da: "Aukera hau aprobetxatu eta Arrasateko zein Debagoieneko biztanleek Arrasateri eta hemengo merkataritzari buruz duten iritzia zein den ezagutu". Eta zera gaineratu digu Oihana Barrutiak: "Era berean, egon daitezkeen sendotasunak edo ahuleziak (gabeziak) hobeto identifikatu nahi ditugu".

### HERRIAREN GAINEKO GALDERAK

Hala, galdetuko dute, esaterako, zelakoa den Arrasateko eskaintza komertziala; zelakoa den denden estetika edo itxura; erosketetan prezio-kalitate erlazioa; herriko erdigunea garbia den edo ez; herriko eskaintza kulturala eta aisialdia nahikoa diren; eta, besteak beste, kaleak osoak diren oinezkoendako.

Horren helburua zera da: "Biztanleak ohartaraztea Arrasaten merkataritza badagoela,

betikoa, gertukoa, konfiantzazkoa". Baita ere "Arrasate herri aktibo, dinamiko eta erakargarria bihurtzea, arlo guztietan: merkataritzan, aisialdian, kulturean... Horretarako, beharrezkoa da eragile guztien ahalegina (merkatariena, administrazioarena...)"

### ZENBAIT DATU

Inkestarekin batera, Ibai Arte elkarteak zenbait datu ere helaraziko dizkie herritarrei. Esate-

Urtero 9.160.700 euroko gastua egiten dute herritarrek Arrasatetik kanpora

Zozketan parte hartzeko txartelak saltokietan eskura daitezke, erosketak eginda

Itsas bidaiata izango da: Bartzelona-Florentzia-Erroma-Napoli-Tunisia-Malta-Bartzelona

rako, Arrasaten merkataritza eta ostalaritzarekin lotutako 616 establezimendu daudela; zerbitzuen sektoreak %37,5eko garrantzia duela Arrasateko ekonomian eta enpleguaren %41 dela. Herritarrek urtero 9.160.700 euroko gastua egiten dutela herritik kanpora ere jakinaraziko dute; elikagaiak erosten, drogeriako kontuetan eta pertsonen zein etxerako ekipamenduan.

**18. URTEURRENA**

Bazara **TOKION** Erloju-denda

Orain arte bezala, zuen laguntzarekin pozik eta ilusioarekin lanean segitzea espero dugu. Eskerrik asko

Erdiko kale 7 • tel.: 943 7991 64 • Arrasate

## Udala auzoko San Esteban eliza goitik behera konpontzen dabilta

U.M.

Teilatua, elizaren kanpoko aldea eta barrukoa. Guztia konpontzen dabilta egunotan Udala auzoko elizan. 252.000 euro pasatxoko inbertsioa egingo dute. Horren zati bat auzotarren artean ordaindu beharko dute. Hori dela eta, bi kontu zabaldu dituzte, herritarren ekarpenak batzeko.

San Esteban elizako teilatua jaso eta berria ipini behar dute: egurrak, teilak... guztia berritu beharrean dago. Hala adierazi digu Udalako auzo alkate Martin Uribarrenek.

Halaber, gaineratu digu elizaren egitura ere guztiz konpondu beharko dutela: "Urte askotarako eraikinak dira halakoak, itoginak ditu, habeak zela edo hala daude... Obra handia da, elizak berak estruktura handi samarra duelako. Dena dela, esan beharra dago, baita ere, inguruko elizen artean, San Esteban azkenetarikoa dela konpontzen."

Hala, oro har, konponketa behar duen guztia berritzeko aprobetxatuko dituzte lanok.

Aldaketarik ez diote egingo elizari, baina egitura sendotu eta aurpegia txukunduko diote.

### BARRUAN, ARGITERIA

Elizaren barruko aldeari dago-kionez, aldea eta erretaula azaltetik berrituko dituzte. Baina argiteria guztiz aldatu beharko dute eta paretak ere konpondu beharrean dira.



DEJANE ARRIETA

Udalako San Esteban eliza, goitik behera aldamiaio jantzita duela.

Ramel eraikuntza enpresa dabil lanak egiten. Auzo alkateak jakinarazi digunez, joan den astean hasi ziren lanean eta hila-bete pare batean-edo bukatuko dutela espero dute, "eguraldiak laguntzen badu".

### DIRUA BATU BEHAR

Lanak egiteko 252.425 euro pasatxoko aurrekontua zehaztu dute. Kopuru horren %70 Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko du, ondarea zaintzeko ematen dituen dirulaguntzetatik; %10 Arrasateko Udalak emango du; beste %10 gotzaindegiak eta gainerako %10a Udala auzoko eliztarrek.

Horren harira, Martin Uribarrenek esan digu egoeraren berri ematen duten gutunak bidaliko dizkietela auzoko eliztar guztiei; hain zuzen ere, "auzoarekin harremana duten pertsona guztiei" bidaliko dizkiete gutunok, dirulaguntza eskatzen.

Halaber, jakinarazi digu bi kontu korronte zabaldu dituztela eliztarren eta dirua eman gura duten herritarren laguntzak batzeko. Kontuetako bat Kutxan zabaldu dute, honakoa da zenbakia: 2101 0123 98 01 25047027. Beste kontua, berriz, Euskadiko Kutxan zabaldu dute.

## LABUR

### Arrasateko Askatasuna elkarteak salatu du Unai Parot bizi osorako zigortu gura dutela

Salatu duenez, azaroaren 18an deklaratu zuen Parotek Grande-Marlaska epailearen aurrean. ETArekin harremana izateaz akusatatu zuten "eta Unai Parotek epaiketan guztia ukatu arren prozesuak aurrera jarraitzen du". Askatasunak zera esan du: "Apirilean zigor kode berria aplikatzen saiatu ziren baina hori ezinezkoa zenez, bestelako neurriak hartu zituzten euren helburu mendekatzailerako lortzeko: erredentzioak kendu eta jarritako 26 zigorrak epe batean betetzen utzi ordez, zigorrok bi ataletan bereizi dizkiote (...). 60 urte gutzira, bizi osoko kartzela zigorra jarriko liokete bizkar gainean".

### EHNA egitera etorriko dira, bihar, zapatua, 11:00etatik 13:00etara, Monterronera

Honako dokumentuak eraman behar dira: hiru argazki (nortasun agiriko tamainakoak, fondo zuria dutenak); udaletxean eskatu behar den errolda agiria eta 15 euro. Horrez gainera, adinez txikikoek famili liburuaren fotokopia eraman beharko dute. Datorren hilean berriro izango dira Arrasaten, EHNA gehiago egiten.

### Portaloira topaguneak bigarren eskuko jantzi azoka egingo du abenduren erdialdean

Hain zuzen ere, azoka horretarako jantziak batzen dabilta orain. Hala, erabiltzen ez den eta egoera onean dagoen jantzirik edo osagarririk (poltsak, txapelak, gerrikoak...) izanez gero, Ekaitz, Irati edo Iristu tabernetara eraman behar dira, abenduaren 5a baino lehen. Azoka bera abenduaren 17an eta 18an ipiniko dute, 11:00etatik 20:00ak arte, seguru aski, Seber Altuben. Batzen duten dirua presoen aldeko Portaloira topagunerako erabiliko dute.

### Aldai husteko lanak bukatzen dabilzala-eta epe-muga ipini du Udalak eskaerak egiteko

Hau da, Aldai hilerri zahararen senideren baten gorpuzkiak izanez gero, haiek eskuratzeko epeari ipini dio Udalak muga. Hain zuzen ere, datorren urteko urtarrilaren 15a baino lehen egin behar dira eskaerak. Erreklamatzeko ez diren gorpuzkiekin zera egiten dute: gorpua hobitik atera, erraustu eta San Kristobal hilerriko hezurtegia utzi. Aldai hilerrian oraindik daude zenbait gorpuzki eskatu barik: hamar panteoi, hezurtegi batzuk, ohiko hamar enterramendu eta kapera aurrean dauden beste zenbait enterramendu.

ARRASATEARRREN ARTEAN 150 URTE BAINO GEHIAGO • BERRIZTUTA

RESUSTA  
*Karrikiri*



Erdiko Kalea 38 • Tel: 943 79 01 07

ELKARRIZKETA

BIXENTE ELORTZA ETA JON DORRONSORO/FAGORKO EUSKARA BATZORDEKOAK

# "Fagor Taldeko kooperatibetan euskararekiko ahalegin inportantea egiten dugula uste dugu"

UBANE MADERA

**D**atorren eguaztenean, hilak 30, Fagor Taldeko Euskara Plana aurkeztuko dute Arantzazun. Euskara Batzordeen topa-gunea egingo dute. Gehiago jakin guran, Fagor Taldeko Euskara batzordeko koordinatzaile Bixente Elortza eta Euskalaneko presidente eta Euskalanen Fagorko ordezkari Jon Dorronsoro arrasatearrek berbetan izan gara:

**Zertan da Euskara Plana? Zergatik eta zela hasi zineten horrekin?**

Euskararen inguruko mugimenduaren lehenengo hastapenak 80ko hamarkadan izan ziren. Euskara eskolak egin genituen eta zeharkako eskulanaren inguruko zenbait irizpide zehaztu genituen. Baina handik denbora laburrera krisia ateratu zen eta euskararen aldeko ekimenek sostengu ekonomikorik ez zuten, hortxe gertatu zen. Baina nahiko lan egin genuen. Esaterako, Fagor Etxetresnetan (lehenengo Ulgorren) gau- eskolak abiarazi genituen.

Beti egon da euskararekiko halako ardura bat ibarreko kooperatibetan. Eta formalki eta indarrez euskara planak 1997an abiarazi zituzten ofizialki. Hasieran, Edelanen, Mondragon Assambleyn (lehenengo Fagor Sistemas) eta Fagor Etxetresnetan.

Gero, 1998an, Fagor Taldea Emunekin batera elkarlanean hasi zen eta euskara planak Fagor Talde osora zabaltu ziren.

**Zela egin duzue hori guztia antolatuta eta zabaltzeko?**

Kooperatiba bakoitzeko negozio bakoitzean euskara batzordeak daude. Enpresa handienetan (esaterako, Fagor Etxetresnetan) dago batzorde eragile bat.

**Euskara planen helburua euskara bultzatzea da, baina zelan zentzutan?**

Fagorrek eta Emunek sinatutako hitzarmenean esaten zen planen helburua ez dela langile guztiak euskalduntzea, baizik eta gure kooperatibetan ia galdu den euskararen erabilera berreskuratzea. Ez da horrenbeste idaztea-eta, baizik eta erabiltzea. Azkenean, gaur egun ikasketak euskaraz burutzen dituztenek jarraipena izan dezaten. Ez dugu ezer egiten ikasketak euskara hutsean egitearekin baldin eta gero horrek jarraipenik ez badauka lanean.

Horri gehitu behar zaio Fagor Taldean bi hizkuntzak direla ofizialak. Koofizialtasun horri eusteko egin behar ditugu planak. Garai batean euskara bigarren postuan zegoen erdara nabarmendu zelako; hala, euskaraz lan egin nahi duenak eskubide hori izan ahal dezaten egin ditugu planak.

**Zelako emaitzak lortu dituzue orain arte; igartzen da?**

Erabilera eta ezagutza mailari dagokionez, 1999an %17ko erabilera zegoen eta 2004an, berriz, %32ra iritsi zen. Ezagutza, berriz, 1999an %53koa zen eta 2004an %63koa da. Hain zuzen ere, horixe da nabarmenena: 99an, ezagutza %53koa izan arren, %17k bakarrik erabiltzen zuten euskara. Batez ere, horregatik abiarazi genituen euskara planak.

Badaude beste datu aipagarri batzuk: esaterako, garai batean, urteroko ohiko batzar nagusietan euskara entzuten zen, baina baze goen halako erreakzio bat. Hori gaitzuta dago. Eta ez hori bakarrik, hainbat kooperatibetan euskara hutsez egiten dira azalpenak, bat-bateko itzulpenarekin.

Garai batean esaten zen zenbait gauza ezin zirela euskaraz esplikatuta, teknikoegiak zirelako. Orain ederki moldatzen gara.

Bestalde, esanguratsua da Fagor Taldeak egin zuen azkeneko batzarrean guztiak berba egin zutela euskaraz, euskaldunberriek ere bai.



Jon Dorronsoro eta Bixente Elortza, Fagorko Euskara Planaren gainean azalpenak ematen.

*"Erabilera eta ezagutza mailan, 1999an %17ko erabilera zegoen eta 2004an %32koa"*

**Euskara planez gainera, bestelakoak ere egiten dituzue...**

Bai. Zuzeneko eskulanari dagokionez, bazkideen seme-alabak sartzen direnean kontuan hartzen da puntuazio jakina; tartean euskarak %10eko balorazioa du. Hori ipinita dago, azken batean, sartu behar denak euskararen erabilera lagun dezaten. Soberan dago dirulaguntzak-eta ematea gero langile berriak, neurri batean behintzat, euskaldunak ez badira.

*"Esaten zen zenbait gauza ezin zirela euskaraz esplikatuta; gaur egun ederki moldatzen gara"*

Zeharkako eskulanarendako ere araudi bat dugu. Komertzialak, administrazioa... sartzen dira hor. 2004ko kontratazioetan, kooperatiba guztietan %87ko ezagutza lortu zen euskararen exigentzia eskatzen den postuetan. Esaterako, geroago eta gehiago ikusten dugu hornitzaile gehiago daudela euskaraz dakitenak. Eta orain barruko promozioetan ere zentzu horretan ari gara lanean; barruko promozioetan ere euskara eska dezaten.

*"Gaur egun fondo sozialaren %18 ematen dute euskararendako: 1,2 milioi euro"*

Fagorren ahalegin inportantea egiten dugula uste dugu. Beste enpresetan ez dugu uste euskara eskatzen dutenik.

**Eta hori guztia egiteko, nondik lortzen duzue dirua?**

Emun eta Fagorren hitzarmenaren ondorioz ikusi zen geroago eta kooperatiba gehiago planean sartzen diren neurrian, aurrekontua gora zihoala. Gaur egun, fondo sozialaren %18 ematen dute euskararendako: 1,2 milioi euro (lehenengo 200 milioi pezeta).

**ad Ibabe**

**IBABE GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE.

arbolapeta

arrasate

**bsinke**

**db** KONTRATAK

**IRYROK S.L.** ERAIKUNTZAK

Meatzerreka-5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 25**  
Zabala, Zarugalde 42 ..... 943 77 16 30
- ZAPATUA, 26**  
Azkoaga, Ferrerías 1 ..... 943 79 15 15
- DOMEKA, 27**  
Azkoaga, Iturriotz 17 ..... 943 79 79 99
- ASTELEHENA, 28**  
Corcuera, M. Aranbarri 1 ..... 943 79 22 26
- MARTITZENA, 29**  
Irizar, Erguin 11 ..... 943 79 12 39
- EGUAZTENA, 30**  
Amezua, Santa Marina 32 ..... 943 79 09 74
- EGUENA, 1**  
Español, Araba etorb. 14 ..... 943 79 18 65
- EGUBAKOITZA, 2**  
Ruiz, Maala 31 ..... 943 79 14 09

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- ERITXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea, .. 943 03 53 00  
Igalatorioa ..... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak ..... 943 79 39 00  
Emakumeak ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea ..... 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**  
SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
DYA ..... 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua ..... 943 46 11 11  
Astelehenetik egubakoitzera ..... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan ..... 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan, .. egun osoa
- Arrasate**  
Astelehenetik egubakoitzera ..... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan ..... 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:  
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea ..... 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak ..... 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak ..... 943 45 87 44

- ERTZAINZA**  
Arrasate ..... 943 79 71 99

- SUHILTAILEAK**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua ..... 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea ..... 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) ..... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
..... 943 79 78 44

- GARRAIOAK**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa erretiriaturen egoitza ..... 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron ..... 943 77 01 05

**MEZAK**

<b>San Juan parrokia</b>	<b>San Andres eliza</b>
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 meza nagusia 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (gaztelaraz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaraz)
<b>San Frantzisko eliza</b>	<b>Santa Teresa eliza</b>
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (gaztelaraz)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:30 (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaraz)
<b>Uribarri parrokia</b>	<b>San Isidro</b>
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (gaztelaraz)
Domeka 12:00 (elebiduna)	

**OHARRAK**

**GOIKOBALUK, SANTA ZEZILIA**  
Gaur, egubakoitza, Gpikobaluk Santa Zezilia eguna ospatuko du. 19:30ean Portaloian elkartuko dira eta kalejiran txikiteoa egingo dute. Portaloian, Arbolapetan eta Parrokiako arkupeetan hainbat kantu abestuko dituzte.

**EHNA EGITEKO KANPAINA**  
Bihar, zapatua, EHNA egiteko aukera izango da Monterron jauregian, 11:00etatik 13:00etara. Hala, hiru argazki, errolda agiria eta 15 euro eraman beharko dituzte.

**MONDRAGOETARREN BERBALDIA**  
Martitzenean, hilaren 29an, *Soberanía o subordinación* liburua aurkeztuko dute Monterronen, 19:00etan. Liburuaren egile Tomas Urzainki eta Nabarraldeko Anjel Rekalde egongo dira.

**GAZTE ASTEBURUAK**  
Bihar, zapatua, pintxo lehiaketa egingo dute udaletxe azpiko arkupeetan, 16:30ean. Horren ostean, 18:30ean, kale animazio taldeak ibiliko dira kalejiran.

**BUSINESS-EN KONTZERTUA**  
Gaur, egubakoitza, Business taldeak kontzertua egingo du 3.60 aretoan, Golpe de Estadorekin, 23:00etan.

**AEDren AGENDA**

**EUSKAL KANTUEN LIBURUXKA**  
Seaskak eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak 164 euskal abestiz osatutako poltsikoko liburuxka argitaratu dute. AEDn dute salgai, oso merke.

**URBANOEN ORDUTEGIA**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**  
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Inarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**  
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.  
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Takoloko bidegurutzeta hobetzeko proiektua**

Takoloko bidegurutzeta hobetzeko proiektua bidali zion Aldundiak Udalari. Aldundiaren asmoa zen bi bidegurutzek, Takolokoa eta Bedoñakoa, batzea, eta glorieta erako bidegurutze zirkularra egitea, noranzko guztiak batu. Bedoñara joateko zubia bota egin gura zuten, eta berria egin.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*“Traza”*



— Traza txarra artzen dotsat asunto oni.

JON IRAEGI

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Oñatiko Kultur L.A.B. hip-hop musika taldea, besteak beste, ‘Asteko Gainbegiratu’-n**

Talde bitxia izan dugu astean Arrasate Irratiko *Igo Autobusera!* saioan. Kide guztiak Oñatin bizi diren arren, jatorri askotakoak dira Kultur L.A.B. taldekoak: Moha Saharakoa, Johan eta Txarli Ekuadorkoak eta Kirrin oñatiarra. Kirrin musikaz eta programazioaz arduratzen da, eta beste hirurek abestu edo *raperatu* egiten dute, izan ere, hip-hop taldea osatzen dutelako. Oso talde koloretsu eta bizia da, eta elkarrekin egin duten urtean hainbat

kontzertu egin dituzte. Arrasate Irratian ere, mikrofono aurrean, hainbat kantu abestu zituzten, zuendako, entzuleendako.

**EGUBAKOITZEKO ‘GOIENKARIA’**

Bestelako gaiak ere izan dira. *Goienkaria*-k aldaketa batzuk izango ditu laster, eta irakurleek ere zer esana dutenez, *blog*-a zabaldu dute, gura duenak ekarpenak egin ditzan. *Goienkaria*-ko zuzendari Eneko Azkaratek azaldu dizkigu.

**HAUGIROA!**

MINIMOA Zapatua, 19	<b>2°C</b>
MAXIMOA Astelehena, 21	<b>16°C</b>
ASTEKO EURIA (l/m <sup>2</sup> )	<b>22,8 L</b>
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 16	12°C 9°C 14,1 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 17	12°C 9°C 8,7 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 18	12°C 7°C - l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 19	16°C 2°C - l/m <sup>2</sup>
Domeka, 20	15°C 4°C - l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 21	16°C 7°C - l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 22	12°C 3°C - l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

- ZAPATUA**  
10:00 Asteko gainbegiratu.  
Kultur L.A.B. Oñatiko hip-hop musika taldea; Eneko Azkarate, Goienkariako zuzendaria; Lorategia geltokian, Gabonetako zuhaitza berbagai; Agurtzane Zubero, emakumearen aurkako indarkeriaren diagnostika...
- DOMEKA**  
10:00 Asteko gainbegiratu.
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
10:00-12:00 IGO AUTOBUSERA!  
Albistegia.  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).  
Elkarrizketak.  
Meteorologiaren geltokia (Pello Zabala).  
Ibili munduan geltokia.  
Zorion agurrak.  
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
- 12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
- 14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 17:15 Zorion agurren tartea (errep.)

## KALEINKESTA/ Gerueu eta denda gehixau dabitx zerretan; datorren astien Hire. Arduratute?



**JOSE ALBERTO PEREZ**  
Langillie



**MARIASUN MARTINEZ**  
Erretiraue



**NEKANE LIZARRALDE**  
Langillie



**LOURDES TROJAOLA**  
Langillie



**ESCOLASTICA DE NOVA**  
Langillie



**JABIER LARRAÑAGA**  
Langillie

Bai, arduraketan nau. Geure kulpie dala pentsetan dot, kanpuen erosteko ohiturie daukouleko. Hamengodendetan erosi ezker, ez dau kotxerik hartu biherrik, komoduau da.

Bai, asko arduraketan nau, Mondrague denda barik geraketan dabillelako. Erdiko kalie zelan dauen ikustiek penie emuten dau. Herritarrok saltoki txikiñei lagundu biher dutzou.

Bai, penie emuten dust herrixen dendak zerretan juetie. Batez be problemie janari dendetan dau... Eroskiran juen bihera daukou gure edo ez gure, eta han erostie ez da bardiñe.

Jente nagusixei eragingo dutzo gehixen. Zerretan dabitzen dendak aspaldiekuek die eta herrixen historixie be badie. Gaztiek saltoki haundixetara jueteko ohiturie daukie.

Bai, arduraketan nau. Saltoki haundixetan erostie askoz hotzaue da. Gaiñera, denda txikiñetan klientiei aholkue emuten dutzie. Lanpostuek galdu egingo die, eta herrixen husten juengo da.

Neu Bergarakue naz, eta azken zazpi urteotan ikusi dot taberna eta denda mordu itxi dauela. Jentie saltoki haundixetara jueten da egune pasetan, eta hori asko igerriko dou.

### USTEAKUSTE

### TXALOAK ETATXISTUAK

### HERRITARREN BERBAK/ Asier Zubizarreta

## Basamortua

Astean Oihan Zubizarreta kolaboratzaile finak (behin baino gehiagotan parranda egin barik gelditu da, kolaborazioa idaztearren, hori bai mutila!) gogora ekarri dit Hire liburu-dendak atek itxiko dituela datorren astean. Uda ostean, herriz, Onandia gozotegiko atek itxi zituzten, eta Kuku-ko Angelek ere erretiratzeko asmoa daukala aditzera eman du. Hirurak bezeroak izan dituzten negozioak (izan) dira, baina beste arrazoi batzuegatik erabaki zuten saltokiak bertan behera uztea. Hala ere, ba dirudi lagun gutxi gura dituela halakoei jarraipena ematea, eta horrek arduratu beharko gintuzke.

Izan ere, azken urteotan hainbat saltoki itxi dituzte herrian, eta denda txikiak gero eta etorkizun txikiagoa izatearen erruaren zati handia gurea da, gurea eta barneratu ditugun ohiturena, hain zuzen ere. Gutako asko merkataritza-guneetara joaten gara erosketak egitera eta askok aisialdia ere hala antolatzen dute.

Ohitura horien erruz, herrietan gero eta negozio eta ekimen gutxiago daude, eta poliki-poliki kaleak husten dabilta. Europako herrialdeengatik esaten genuena gure artera heldu da. Gure buruari harrika egiten gabilta.



**TXALOAK GAZTE HILABETEARI** Guraso talde batek aditzera eman digu txalotu egin gura dituela Gazte Hilabetea antolatzen dabilzan elkarteak. "Joan den asteburuko Umeen Eguna oso arrakastatsua izan zen, eta gure seme-alabak oso gustura ibili ziren. Eskerrak eman gura dizkiegu antolatzaileei". Horrez gain, uste dute "ezinbestekoa" dela umeendako eta gazteendako asteburuetan halako egitarauak antolatzea, "adin horretako lagunendako herrian ez direlako aukera askorik izaten. Hala jarrai dezatela!".

### ASTEKO DATUA

**9.160.700**

Ibai Arte Arrasateko merkatarien elkarteak aditzera eman ditu datu esanguratsu batzuk herritarren kontsumo ohituren gainean. Besteak beste, azpimarratu du urtero arrasatearrek 9.160.700 euroko gastua egiten dutela herrikanpo.

**EURO GASTATZEN DITUZTE  
ARRASATEARREK KANPOAN**



## Alfer eta maleante

Hogeita hamaikagarrenean izan zen, pasaden mendean. Alderdi progresisten garaipena hauteskundeetan, bandera hiru kolorekoa Eibarko plazan, Borboiaren hanka egin beharra deserrira. Errepublikak. Eta errepublikak ekarri zuen konstituzio berria, aurrerakoa eta laikoa. Sutsu lotu zitzaion erregimen berria eraldaketa lanari, bazegoen zer eraldatu eta. Hezkuntza esate baterako, elitista eta konfessionala ordurarte, instruktio heziketa baino gehiago. Ondo zekiten meneko jaiok hiritar aske bihurtzeko heziketa eta kultura direla giltza. Horrela, zabaldu ziren eskolak eta liburutegi publikoak, irakasleei soldata duina ordaindu zitzaie, ez miseriazkoa, pedagogia berria loratu zen zigorrak eta sineskeriak baztertuz, eta gurutze sotanak ikasgelatik desagertu egin ziren. Ez luzaroan baina. Laister itzuli ziren Ferrolgo

ttikiaren eskutik, franco franco franco. Zenbat maixu-maistra Espainiako bidez bazerretan, bala buruan. Hirurogeita hamabostgarrenean izan zen, pasaden mendean, hain zuzen. Diktadorearen heriotza, Borboiaren itzulera agintera, trantsizio demokratikoa. Monarkia. Eta monarkiak ekarri zuen konstituzio berria, autonomo-entralaikonfessionala edo. Sutsu ekin zion erregimen berriak eraldaketa lanari dena bere horretan uzteko, to Lampedusa. Hezkuntza esate baterako. Horrela, Batikanoarekin eztaikit ze akordio direla eta, eskola erlijiosoak ordaintzen jarraitzen dugu oraindik, denon diruaz, baita erlijio-irakasleak ere eskola publikoetan, umeak dotrina katolikoan hezitzeko. Eta horrekin konforme ez eta, hara, orain kalera atera zaizkigu obispoak manifestazioan. Grisak ez ei ziren agertu bizkarrak berotzera, alfer eta maleante halakoak!

**"Ondo zekiten meneko jaiok hiritar aske bihurtzeko heziketa eta kultura direla giltza"**

IKER BARANDIARAN

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Ubane Madeta  
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA  
Kepa Martelo

ZUZENTZAILA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Itsaso Berezibar  
Amaia Mundiñano  
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaiñzarain  
Añe Berezibar  
Iratxe Bengoa

ARGAZKIAK  
Mikel Lupiañez

BANAKETA  
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA  
55-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.350 ale

Goiena  
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala



GOIENKARIA

Jagoba Gamarra, Ander Mallabiarrena eta Iñigo Biain jokalaria, Valsay Ardoi taldeko jokalaria bat presionatzen.

# Kalagorriren kontra jaia antolatu du Mugarri Alkesak

XABIER URTZELAI

Joan den astean Legartziari irabazita Mugarri Alkesa saskibaloitza taldeak gertuago du igoera fasea. Lehenengo postuan jarraitzen dutela ospatzeko, eta taldea babesteko zaleak animatu guran, Arrasateko taldeak jaia antolatuko du biharko.

Kalagorri etorriko da bihar (18:00etan) Iturripera, eta Mugarri Alkesa Arrasateko jai ederra-ekin egingo die ongietorria. Arrasateko taldea Lehenengo Mailako liderra da, eta geroago eta gertuago du igoera fasea, azken urteotan lortu ez duten helburua. Eta ibarreko jarraitzaileek bolada onarekin gozatu ahal izateko, klubak jaia antolatu du biharko. Kalagorriren kontra Iturripeko harmailak jendez betetzeko hainbat ekintza antolatu dituzte; besteak beste, Aguraingo Sorginetxe txaranga ekarriko

dute giroa berotzeko. Kontrarioaren gainean esan, Kalagorri ez dela azken urteotako kontrario gogorra; errioxarrak seigarren daude sailkapenean, hiru norgehiagoka irabazita. Dena dela, Zurututzaren mutilek segundo batean ere ezingo dute kontzentrazioa galdu.

### LIDERRA ATXABALPEN

Futbolearen ere ikusteko moduko norgehiagoka jokatu dute bihar arratsaldean Mondrak eta Real Unione. Arrasatearrek liderra hartuko dute, bi norgehiagoka

baino galdu ez dituen taldea. Talde zuri-morean min hartutako hainbat jokalaria garrantzitsu daude, Gotzon eta Alartzia, besteak beste. Baina, bihar ikusi ahal izango da ustez ondoen dabilenaren eta Mondraren artean zenbateko aldea dagoen; sailkapenak 10 puntuko aldea dagoela dio, eta horrekin batera, egia da Real Union trebea dela ate aurrean, eurek egin dituzte-eta gol gehien (29).

### LEIZARAN, AZKENA

Andoainen jokatu du Ford Mugarri Arrasate eskubaloitza taldeak, azkeneko postuan dagoen Leizaran taldearen kontra (bihar, 16:30ean). Leizarangoek norgehiagoka bat ere ez dute irabazi, ezta berdindu ere; horiek dira talde horren aurrekariak. Eta, orain dela bi aste galduta, eta joan den astean Urolaren kontra berdinduta, hirugarren postuan dagoen Ford Mugarri garaipen beharrean da, gain-gai- nean dago-eta Usurbil.

*Norgehiagokan giroa berotzeko Aguraingo Sorginetxe txaranga egongo da Iturripen*

## ZALDIBARARETOFUTBOLA

### PARTIDUAK

AZAROAK 26, ZAPATUA.	EPAILEAK
10:00: Fuxxion - Arraño Tab.	AT Celaya
11:00: HLB 108 - AT Celaya.	Fuxxion
12:00: Txoponbeixek - Berdes Bre.	HLB 108
13:00: Abokajarro - Tomahawk.	Txoponbei.
16:00: Betrayer - Billy & The...	Dribling
17:00: Dribling - Iluntz	Billy & The...
18:00: Aurrera Bol - THC.	Iluntz
AZAROAK 27, DOMEKA.	EPAILEAK
11:00: Irish Pub - Pippol.	Saukelu Scre.
12:00: AC Surcos - Saukelu Scre.	Irish Pub
13:00: Lasagabast. - Iritzu Tab.	AC Surcos

### SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. Arrano Taberna.....	9	3
2. Betrayer.....	9	3
3. Iritzu.....	9	3
4. Dribling.....	9	3
5. AT Celaya.....	6	3
6. Tomahawk.....	6	3
7. Billy & The Cowboys.....	6	3
8. Fuxxion.....	4	3
9. Lasagabaster.....	4	3
10. Abokajarro.....	4	3
11. Pippol.....	4	3
12. Saukelu Scream.....	3	3
13. Iluntz.....	3	3
14. AC Surcos.....	3	3
15. HLB 108.....	3	3
16. Irish Pub Dublin.....	3	3
17. Txoponbeixek.....	3	3
18. Berdes Bremen.....	0	3
19. THC.....	0	3
20. Aurrera Bolie.....	0	3

## HAINBAT ARAUREN AZALPENA

### ANTOLATZAILLEEK ARAU BATZUK ARGITU GURA DITUZTE

Joan den asteko jardunaldian izandako gertaerak kontuan hartuta, antolatzaileek erabaki dute komeni dela hainbat arau eta zigor gainbegiratzeko. Hasteko, momentu horretan jokatzeko ez dagoen jokalariren batek jokaldia moztzen badu epaileak penaltia adieraziko du, eta jokalaria horrek norgehiagoka bateko zigorra izango du. Horrekin batera, esan behar da posible dela baloia zela erditik ateratzen denean zuzeneko jaurtiketa egitea. Eta, arazorik sor ez dadin, penalti bikoitza zuzeneko jaurti beharko da, ezingo da paserik egin. Bestalde, antolatzaileek HLB 108 taldekoel abisua eman diete; izan ere, joan den astean epaile lanak egin behar izan zituzten, eta badirudi lan hori ez zutela behar den moduan egin.

## KIROLAGENDA

### JOKATZEKOAK

#### FUTBOLA

<b>Mondra - Real Union</b> Preferentea. Zapatuan. 15:30. Atxabalpen.
<b>Union Txiki - Mondra</b> Ohorezko gazteak. Zapatuan. 17:00. Errenterian.
<b>Soraluze - Arrasate</b> Big. Gazteak. Zapatuan. 15:45. Ezozian.
<b>Arrasate - Beti Ona</b> Kadeteak. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.
<b>Mondra - Urki</b> Emakumezkoak. Domekan. 15:30. Atxabalpen.
<b>Arizmendi Arrasate - Urola</b> Neskak F8. Domekan. 09:30. Almenen.
<b>Arrasate - Aloña Mendi</b> Alebinak. Domekan. 11:15. Arrasaten.

### SASKIBALOA

<b>Mugarri Alkesa Arrasate - Kalagorri</b> Lehen Maila. Zapatuan. 18:00. Iturripen.
<b>Mugarri Alkesa Arrasate - Atletico S.S. Junior.</b> Zapatuan. 12:00. Musakolan.
<b>Mugarri Alkesa - Atletico S.S. Urkitza</b> Kadeteak. Zapatuan. 10:00. Musakolan.

### ESKUBALOA

<b>Leizaran - Ford Mugarri Arrasate</b> Lehen Territ. Zapatuan. 16:30. Andoainen.
<b>BKL CAF - Arrasate Eskubaloitza</b> Big. Territ. Domekan. 11:45. Beasainen.
<b>Gatz Museoa Jakion - Amenabar Zarautz</b> Gazteak Mut. Domekan. 11:30. Iturripen.
<b>Aloña Mendi - Gatz Museoa Jakion</b> Kadet. Mutlak. Domekan. 10:45. Zubikoan.
<b>Pulpo - Arrasate</b> Gazteak. Nesk. Domekan. 11:30. Zumaian.

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**PUB HAIZEA**

arrasate

**Pando Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebeldun hizkiak

# Laura Esquivelen 'Como agua para chocolate' eleberria antzeztu egingo dute

IKER BARANDIARAN

Etzi, domeka, *Como agua para chocolate* antzezlana eskainiko dute Amaia Udal Antzokian, 19:30ean. Ados antzerki taldeak eramango du taula gainera Laura Esquivel idazlearen eleberri ezagun hori.

Domekan Laura Esquivel idazlearen eleberri ezagunaren oinarritutako lana antzeztuko dute. Mexikoko Iraultzan kokatutako amodio istorio gazi-gozo hori oso ezaguna da, bai liburuarengatik eta baita Alfonso Arau zuzendaria egin zuen film arrakastatsurengatik.

Ados antzerki taldeak eleberriaren eskubideak erosi eta antzokietara eramanean du lehenengo aldiz. Garbi Losadak egokitu eta zuzendu du ikuskizuna, hain zuzen ere, eta gaztelarazko bertsiota bakarrik egin dute.



Eleberri arrakastatsu horretan oinarritutako antzezlana egin dute.

Ikuskizunean esku hartzen duten aktoreak ezagunak dira: Ana Lucia Billate, Antonio Castro, Iñake Irastortza, Esther Uribe, Tania de la Cruz, Mila Espiga, Eli-

sa Marinas, Koldo Losada eta beste batzuk.

Titak ezingo du maite duen Pedro Muskizekin bat egin, etxeko ohitura zorrotzek ama hil arte


hura zaintzen behartzen dutelako. Arrazoi horregatik, sukaldia Titaren babesleku bihurtuko da, emakumezkoen boterearen ikur.

Komedia, errealismoa eta melodrama nahastuz, ikuskizun horrek Mexikoko Iraultzaren berri ematen du eta emakumezkoen, matxismoaren eta maitasunaren gaineko hausnarketa sakona egiten du. Horretarako, sukaldia eta janaria baliatzen dituzte gailu moduan.

## ADOS-EN EKOIZPEN HANDIENA

Honako hau Ados antzerki taldeak egin duen ekoizpen handiena da. Guztira, bederatzi aktorek esku hartuko dute.

Ados antzerki taldeak hainbat ikuskizun egin ditu orain arte, arrakasta handia izan dutenak: *Manolito Gafotas*, *Gus y Gas*, *Desperados*, *Las mujeres de verdad tienen curvas* eta *El Decameron*, besteak beste.



## Jokin Rodriguezen margolanak Anbotosten

Jokin Rodriguez margolari arrasatearrak hainbat artelan jarri ditu erakusgai Anbotoste jatetxe begetarianoan (Larrea plaza 22). Margolanak egiteko euskarria erabilitako kartoiak dira, eta erakusketari *K'arton*, s izena jarri dio. Oso lan koloretsuak dira, eta horietako askotan Arrasateko txokoak marraztu ditu. Abenduaren 22ra arte egongo da ikusgai. /I.B.

## Arregi galerian Javier Ramosen lanak

Javier Ramos bilbotarrak erakusketara jarri du Arregi galerian. 27 lan jarri ditu erakusgai: hiru margolan handi, 21 txiki eta hiru marrazki. Ramosen esanetan, abstraktua eta espresionismo kolorista uztartzen ditu, eta dagoeneko 18 bat erakusketatan esku hartu du, horietako batzuk Alemanian eta Suitzan. Abendu hasierara arte egongo da ikusgai. /I.B.

## LABUR

### Abendu bukaeran, The Black Heritage Choir gospel taldea

Udaleko Kultura Sailak gospel talde bat eramango du Amaia Udal Antzokira abenduaren 23an. Taldea The Black Heritage Choir da.

Talde hori 1994an sortu zuten AEBetan, eta hainbat afroamerikarrek osatzen dute. Orain arte, AEBetan hainbat bira egin dituzte eta euren emanaldiek arrakasta handia dute. Horrez gainera, Madril, Bartzelonan eta Donostian ere izanak dira, eta antzokiak bete egin dituzte.

Zeresan handia eman duten hainbat disko kalera egin dituzte; besteak beste, *I've been touched* (Lecresia Campbell abeslariarekin), *Draw me nearer* eta *Swing low*. Zuzenean gospelaren hainbat adar ukitzen dituzte: tradizionala, espirituala, gaur egungoa...

### Amateur saria 'Kabana' dokumentalarentzat

Joan den zapatuan, Jon Berebizarrek, Iraia Agirrek eta Leire Zuazagak Lekeitioko Bideo Bileran Dokumental Amateurraren saria jaso zuten. Zilarrezko Antzarra eta 600 euro jaso zituzten.

*Kabana* izeneko dokumentala Unibertsitateko ikasketekin lotutako proiektu baterako egin zuten. "Jendeak bere horretan ezagutzen ez dituen gaiak izaten ditu berbagai, eta horren gaineko dokumentala egin gura genuen", azaldu zigun Jon Berebizar arrasatearrak. Oso jende gutxi ezagutu arren, ospe txarra daukan Lekeitioko Kabana kontserba enpresa aukeratu zuten.

"Lana Unibertsitatean aurkezteko egin genuen, baina protagonistek Lekeitioko aurkezteko eskatu ziguten".

Dagoeneko badute beste proiektu bat esku artean. Kalean bizi den jendearen bakardadea landu gura dute.

Monte  
taberna

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

ZUBIZARRETA  
LANTEGIAK

Gipuzkoa etorbidea 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

MADINA ZURAK  
Aroztegia

- Olak
  - Aglomeratuak
  - Kontraxapatuak
  - Tablexa
  - Ateak
  - Egurrezko leihoak
  - Oin-inguruak
  - Zangoak
  - Aroztegiko osagarriak
- Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea  
Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE  
e-posta: mz@madinazurak.com

BITTORI  
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

## BOTEPRONTUEN

## Iker Laskurain

## NARRU ERRETEGIA

XABIER URTZELAI

Mondraguekuek izenda be, Iker eta Maier Elorrixora juen die, aspaldixen eukien asmue betetera. Zerrate euen erretegi hartu daue, eta martxan ipifi. Horrekin bixokin gatxa da entrebista serixue egittie, eta eskertu egitten da, gaiñera.

Azkenien jarri dozue martxan erretegi.

Halaxe da, bai. Badie 20 egun Narru zabaldu geuela, eta poliki-poliki goiez aurrera egitten.

**Hasi da ametsa beteten.**

Bai. Maierrek eta bixok argi geuken holako negozio bat zabalketie gure geuela. Hasierako asmue zan Mondraguen pintxuek eta holakuek egongo zien taberne jartie, baiñe ez geuen topau gure geuena. Oin hartu doun erretegi urtebete egon da zerrate, baiñe 25 urtien egon da zabalik. Hortan, herrixen jentiek ezagutu egitten dau.

**Ze eskaintzen dozue?**

Poliki hasi gure izen dou, neurrixe hartzen jueteko. Aste barruen eguneko menuek emuten dou, eta inguruen pabeloi asko dauenez lana egongo da. Aste bukeretan kartiekin egitten dou lan, eta horrekin batera bokadilluek, plater konbinauek...

**Eta ze dauketzue kartan?**


Karta txikiñe preparau dou, hasibarririk garen ez ofreziduten douna ondo emuteko. Kalluek, frituek, lasañie...

**Eta buruen idea gehixau.**

Bai. Narru erretegi da, baiñe ondiokan ez gare txuletak edo arrañie emuten hasi. Espero dot Gabonetarako parrillie martxan eukittie; horretan gabitz lanien. Horrekin batera, goixetan armozuek emuten hasiko gare.

**Eta Narru nun dauen azal-ketie be komeniko litzake.**

Ez da bape gatxa. Kanpanzarretik etorri ezker Elorrixoko autobidie hartu, eta rotondara aillegautakuen Elorrixo aldera sartu. Berehalaxe ikusiko daue ezkeraldien eleixie, eta geure erretegi eleixien onduen dau.



X.U.

*“Aste barruen eguneko menuek emuten dou; horrekin batera kartie, plater konbinauek...”*

**Honezkeru jentie etorriko zan bisitan.**

Bai, jente asko etorri da Mondraguetik eta inguruetatik, eta pozgarrixe da. Askok lagunak, eta beste asko espero ez geuen jentie. Geuri gustora geratu diela esan duskue, eta hori inportantie da.

**Hortan, Bilbo aldera egin biher dounien badaukou nun egin geldialdixe.**

Sin falta!!! (Maierrek barrezka).

**Lana alde batera itxitte: ze falta jako Debagoienari?**

Narru erretegi bertan egotie!

**Eta ze dauko ona?**

Erretegi gertu dauela.

**Ze falta jatzu zeuri?**

Oin arte arrautzak, baiñe

*“Elorrixoko autobidie pasau, eta rotondan eskumara hartute, eleixa onduen dau Narru erretegi”*

Hodeik ekarri dau oin mordue.

**Ze dauketzu sobran?**

Kalluek.

**Ze da zeuon laneko gauza txarrena?**

Egun dana pasetan doule bertan. Atie zerrate be, garbittu, erosketak egin...

**Eta onena?**

Geu garela geure buruen jefiek, zelanbait esatiarren.

**Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.**

*Los lunes al sol.* Oso ondo erakusten dau askon realidadie zein dan / *Las recetas de Karlos Arguiñano* / Arcada Social.

**Bukaketako, kapritxo bat?**

Elurretara juetie.

## NIREBIDAIAHURA/ Nerea Arrese

Venezuelara / 2005eko udan.

Nerea Venezuelan izan da udan, Ekain Zubizarretarekin eta Xabi Llodioarekin batera. Hiru lagun horiendako Hego Ameriketara joatea ez da esperientzia berria izan, lehenago ere Kolonbian egonda zeudelako. Hala ere, bi lurralde horien artean ezberdintasun handiak antzeman dituzte. Kolonbian ikasketetako proiektua egiten ibili ziren, baina oraingoan Boheri gobernuz kanpoko erakundearen bitartez joan dira Venezuelara. GKE horrek Aretxabaletan du ordezkaria, eta garapenerako proiektuekin egiten dute lan, heziketara bideratuta.

Eta Boheriko proiektueta-ko bat bertatik bertara ezagutu ahal izan dute Nereak, Ekainek eta Xabik: “Eskola batean izan ginen, hango kooperatibetako langileak hezten laguntzen duen eskola baten. Han, langileak heztearekin batera, kooperatiba bat sortzeko behar den heziketa ere eskaintzen dute”.

Eskola horietan eta Caracasko auzoetan bizi izandako esperientzia mamitsuarekin hasi aurretik, baina, lehenengo egunetan egindako bidaiaren berri eman digute: “Venezuelara iritsi eta lehenengo egunak bidaiatzen egin genituen. Hasteko, Meridara egin genuen, mendi aldera. Eta 4.000 metroa geundenean Richard Stallman-ekin elkartu ginen. Hura etorri zen gugana, eta aurkezpenak egin eta gero esan zigun Linux sistema eragilearen sortzailea zela. Guk, badaezpada, argazki kamera atera eta hainbat erretratu egin genituen elkarrekin. Hona iritsitakoan, hainbat lagun harrituta geratu ziren berarekin egon ginelako; guk, baina, gizon hura nor zen ere ez genekien”. Eta menditik hondartzara: “Autobusean egin genuen bidai, ziztu bizian. Autobusa goraino beteta, eta portuak jaisten gidariak frenoak ukitu ere ez zituen egiten, klaxona jotzearekin nahiko zuen. Choroni-n egin genituen hainbat egun, lasai-lasai. Eta handik, berriz, Caracasa joan ginen, eskoletara”.



*“Boheri erakundeak garapenerako proiektuekin egiten du lan”*

XABIER URTZELAI



Xabi Llodio eta Ekain Zubizarreta Linux-aren sortzailearekin.

UGARTE

Industria  
hornidurakSan Andres auzoa 2. 5-6  
Pab.  
Tel.: 943-71 21 41  
Faxa: 943-71 21 40Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroakArrasate pasealekua 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko  
hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak

Olarte kalea, 47 behe Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25





## 'TXORONPIA' ETA 'LONBARDO'-RI ZORIONAK, LAGUNEN PARTETIK

**D**agoeneko *Txoronpia*-ren urtebetetzea pasa da eta *Lonbardo*-rena gaur, egubakoitza, da. Arrazoi horregatik, beraien lagun koadrila handiak aspaldiko partez bat egin zuen biek hala biek hain gustuko duten Ekaitzeko txokoan, hain justu. Eta bi lagun urtebetetzeak gogoratu dituztela erakusteko, argazki kamara hartu eta han bertan egin zuten honako argazkia. Horrez gain, batutakoek eskatu digute lehenbailehen *Txoronpia*-ri eta *Lonbardo*-ri honako mezua helarazteko: "Zorionak,bikote! Etxean behar zaituztegu, azkar baino lehenago! Animo eta egurre! Asko maite zaituzteten herri batetik, besarkada bero eta iraultzaile bat zuendako! Ekaitzeko txokotik, zuen lagunok".



## 27 LAGUNEN ARTEAN LAU KATE APURTZEA EZ DA ZENBATEKO TXARRA; HURRENGOAN GEHIAGO

**J**oan den asteburuan 27 lagun izan ziren Bardeetan, Besaide MTB taldeak antolatutako bidaian. Gustura itzuli dira handik, eta hori, bat baino gehiago mekaniko lanetan ibili zela. Kontua da, aurreko egunetan botatako euria zela-eta, zona batzuetan lokatza apur bat zegoela (edo apur bat baino gehiago) eta urteetan olio usaindu ere egin ez duten kateek ondo igarri zuten hori. Kontuak kontu, hantxe ibili ziren hainbat ingeniari:

batean zapatilak konpontzen, bestean kateak jartzen... Eta, konponbiderik ez zegoenean, aterpetxeraino bultzaka; horretarako zegoen-eta bat baino gehiago sasoi onean. Zapatuan 55 kilometro egin zituzten, eta domekan beste 35 kilometro. Jakin, Besaideko mendiko bizikleta taldeak negu partean atsedena hartuko badu ere; udaberrirako irteera gehiagorekin itzuliko direla; upelategiren batera joateko ez bada ere.



## AGUR-AFARI EDERRAREKIN ERRETIRATUKO DA 'KUKU'

**5**2 urte egin ditu Angel *Kuku*-k Lasagabaster denda ezagunean lanean, eta 65 urte bete berri, erretiroa hartzeko ordua iritsi zaio. Horrek esan gura du herriko denda enblematikoenetako batek atek itxiko dituela; eta tamalez, ez da bakarria izango. Eta, urte horietan guztietan egindako lana eskertzeko, merezi duen moduko agur afaria antolatu dute Leintz Elkartean, datorren zapatarako, abenduak 3. Jakin, afari horretan izena emateko astelehena izango dela azken eguna, eta betiko bezeroek 15 euro baino ez dutela ordaindu behar izango.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



MIKEL LUPÍANZ

Udalaren asmoa da Etxaluze baserria bota eta eraikin berria egitea, eta han erretiratuen elkarte eta auzo alkatetza jartzea.

**ERRETIRATUAK**/ Abaroa elkartearen kokapena adosteko puntuan

## Abaroa elkarte Etxaluzera eramán gura du Udalak

IKER BARANDIARAN

Joan den eguaztenean, Abaroa erretiratuen elkarte arduradunek eta Udaleko ordezkariak batzarra egin zuten Abaroa elkartearen etorkizuna eztabaidatzeko. Udalak aditzera eman zien Etxaluze baserria Udalak hartuko duela, eta han elkarte berria eraikiko dutela.

Abaroa erretiratuen elkarte arduradunak pozik daude. Denbora luzea egin dute arduratuta, ez zekitelako Udalak Abaroa elkarte nora eramango zuen. Kontua da Abaroa elkarte dagoen eraikinean Iturbide egoitza ere bada goela, eta Udalak egoitza handitu gura duela. Horren ondorioz, Abaroa hortik kanpo aterako dutela.

Hasieran, Udalak erretiratuei Arrasate Kirolak dendaren biltegia eskaini zien, baina erretira-

tuek ez zuten onartu, eskasa zela iruditu zitzaielako. Hori dela-eta hainbat eskaera egin zizkioten Udalarí: kultura etxean edo Garibaiko aparkalekuen gainean jartzea, hain zuzen ere. Udalak ezetza eman zien eskaera horiei, eta PPK Saiolango hirugarren solairuan egitea proposatu zuen.

“Udalak eman zizkigun aukeretatik Saiolangoa zen aproposa, nahiz eta hirugarren solairuan egotea ez zen ohikoa”.

Orain, berriz, konforme gel-

*Erretiratuek orain duten ardurá da eraikin berria egin artean nora joan beharko duten*

ditu dira Udalak egin dien eskaintzarekin. “Sorpresaz hartu gintuen eskaintzak, baina aproposa iruditu zitzaigun. Batez ere, eraikin berria izango delako”.

### SAN ANDRESKOEK ERE ERABILTZEKO

Udalak aditzera eman die abenduaren 31n Etxaluze baserriaren jabegoa Udalarena izango dela, eta baserria bota ostean, eraikin berria egingo dutela. Hala, beheko solairua eta lehenengo Abaroarendako izango da. Bigarren solairua, berriz, San Andresko auzo alkatetzarako izango da.

“Egia da erdialdetik Etxaluze egungo Abaroa baino urrunago dagoela, baina ez da distantzia luzea”, azpimarratu zuten Abaroakoek. Horrez gain, San Andreskoek ere erabili ahal izango dute.

Lanak hasten dituztenetik bukatu artean 2 urte pasa daitezkeela adierazi dute.

## LABUR

### Hilaren 30ean, 90 urtetik gorako bazkideak omenduko dituzte Abaroa elkarte

Azkeneko urteotako ohiturari jarraituta, Abaroa elkarteak omendaldia egingo die 90 urtetik gorako bazkide guztiei. Orain dela urte batzuk 80 urtetik gorakoei egiten zieten, baina bizi-itxaropenaren hazkundera dela eta, gero eta adindun gehiago daude herrian, eta 90 urteetan jarri zuten minimoa. 12:00etan egingo dute ekitaldia, eta Udaleko hainbat ordezkari esku hartuko dute.

### Aurten Erretiratuen Abesbatzen Topaketak eta 2006an Erretiratuen Martxa Arrasaten

Debagoieneko erretiratuen elkarte presidente Jose Rivierek aditzera eman digu 2006ko Erretiratuen Martxa Arrasaten egingo dutela. Oraindik ez dute ibilbidea zehaztu, baina adierazi dute urrian izango dela. Bestalde, erretiratuak hasi dira Erretiratuen Abesbatzen VI. Topaketetako horma-irudiak banatzen. Abenduaren 20an egingo dute, Amaia Udal Antzokian. 13 abesbatzak esku hartuko dute, eta horien artean Arrasatekoak.

### Gabonetako otarra eskuratzeko txartelak salgai dituzte Abaroa elkarte

Gabonak laster datozela ezagun da kaleko eta erakusleihoetako argiak eta bestelakoak ikusita, baina beste batzuk ere hasi dira Gabonen gaineko kontuekin. Abaroa erretiratuen elkarte arduradunek bi otarre zozkatuko dituzte erretiratuen artean. Txartelak salgai jarri dituzte, 1,2 eurotan, eta eskuragarri daude Abaroako tabernan, bulegoan eta ile-apaindegian. Abenduaren 22an aditzera emango dituzte bi zenbaki irabazleak.



### Mahai-jokoen txapelketa abian jarri dute

Urtero moduan, Abaroa erretiratuen elkarteak mahai-jokoen txapelketa antolatu du. Azaroaren 29an izango da txapelketa, eta besteak beste honako jokoak egingo dituzte: mus, tute, briska eta billar, hain zuzen ere. Irabazleen artean garaikurrak banatuko dituzte. Interesatuak lehenbailehen eman beharko dute izena Abaroako bulegoan. Txapelketako irabazleak ibarreko norgehiagokan lehiatu beharko dira.

## AMODIOZKO GUTUNEN XIV. BERRIGARA LEHIAKETA

**SMS Bidezko IV. Maitasun Mezuen Lehiaketa**

Antolatzailea

Laguntzaileak




### Oinarriak:

**Amodiozko gutunen XIV. Lehiaketa**

- Adina: 15 urtetik gorakoendako
- Lanak: jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskarazkoak, originala eta hiru kopia bidali behar dira.
- Epea: urtarrilaren 5era arte
- Nora bidali: Jardun elkarte, Errotalde jauregia z/g, 20570 Bergara edo e-posta: kulturajardun@topagunea.com

**SMS bidezko IV. Maitasun Mezuen Lehiaketa**

- Pertsona bakoitzak mezu bakarra bidal dezake
- Mezuak jatorrizkoak eta euskaraz
- Epea: urtarrilaren 1etik 15era
- Nora bidali: 605 71 24 69 edo kulturajardun@topagunea.com



2000 etxe jabeek errentan eman dute euren etxebizitza hutsa Eusko Jaurlaritzako BIZIGUNE programaren bitartez.

## Eman errentan zure etxea beldurrik gabe !

Eusko Jaurlaritzako Visesa arduratzen da gestio osoaz: zuri ordaindu, 5 urte barru etxea hasierako egoeran bueltatu, bizi-lagunak aurkitu... eta ondo ordainduta. Gainera, obrak egiteko 18000 euro arteko dirulaguntza interes gabeko mailegu gisa.

Jo zure udaletxera informazio eske!

**SURADESA**  
Rehabilitación urbana  
DEAGUNA Hiri birgaitzea  
suradesalask@telefonica.net  
Tel.: 943790645  
www.debagoiena.net/suradesa

**visesa**  
VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A.  
[ BIZIGUNE ]

**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO  
ETXEBIZITZA ETA OIZARTE GAIAK SAIA  
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

**ANTZUOLAKO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE ANTZUOLA

**Aretxabaletako Udala**

**ARRASATEKO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAKOR

**BERGARAKO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE BERGARA

**ELGETAKO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE ELGETA

**eskoriatzako udala**

**LEINTZ GATZAGAKO UDALA**

**OÑATIKO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE OÑATI

# Edertasun gida



**ILE APAINDEGI MISTOA**

**iaran**

Zerrajera 1.  
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian  
zapatuak: 08:00-14:00

**AUSART**

Ile apaindegi mistoa  
Estetika zentroa  
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60  
943 77 21 58

ILEAPAINDEGIA

**ILEA**

UNISEX

Ferrerias 14 - 943 79 87 62

*Lore*

Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50  
Lurrindegia eta estetika zentroa

## EZETZASMATU



"ARRASATE, KOOPERATIBA BATEN IBILBIDEA"

Zer dabil bisitatzen (eta non) Kubako presidente Fidel Castro argazki horretan? Arrastoa: Arrasaterekin zerikusia dauka leku horrek.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESS-ERA!

**La Gula del Norte**  
200 g-ko bandeja

**4,60€** 665 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

## AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

**CHARO TROJAOLA**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Charo!

Galderen erantzun zuzena:  
**Musakolako zerrategia.**

## ARRASATEKOHISTORIA

## Basilika berria inauguratu arteko gertaerak

'LA NUEVA BASILICA...' / U.M.

**A**rantzazuko Basilikaren aurreproiektua aurkeztu zutenean, defendatzaile sutsuekin batera, kontrako iritzia gogor erakutsi zuten beste asko ere izan zituzten. Bestelakoen artean, aurrez aurre izan zituzten Saenz Oitza eta Laorga arkitektoek beraiekin lehiatu ziren bestelako zenbait arkitektoen iritziak. Haiiek esan zuten lehiaketa irabazi zuen proiektua ez zela egokia, eta, bestek beste, ez zuela argitasunik eta ez zituela lehiaketan ezarritako arauak betetzen.

Kontuak kontu, aurreproiektua aukeratuta zuten, eta haren arabera hasi ziren basilika berria eraikitzen. Lehen harria 1950eko Arantzazuko Amaren egunean ipini zuten. Jose Migel Zumalabe eta Tomas Ardid aparejadoreek eta Damian Lizaur arkitektoak hartu zuten lanen gidaritzza. Enpresa eraikitzailea, berriz, Araozko Uriarte anaien enpresa izan zen. 15.000.000 pezetako aurrekontua zehaztu zuten basilika berria eraikitzeko. Azkenean, 1951ko ekainean sinatu zuten obrak egiteko kontratua, eta bi urteko epea ezarri zuten lan guztiak bukatzeko.



'LA NUEVA BASILICA DE ARANTZAZU' LIBURUA

Aldare nagusia izango zen harria sartzan; 1963ko urriaren 24a zen. "Gipuzkoako aldare nagusi" esaten zioten Arantzazuri orduan.

## HEGAZKIN ISTRIPUA

Obrak erritmo onean hasi ziren. Besteak beste, Arantzazun zeuden Teologia ikasleek asko lagundu zutelako hasierako lanak egingen. 1952an, oraindik ere, bazirudien lanak bide onetik zoazela. Behintzat, inongo abisurik ez du

*Pablo Lete hegazkin  
istripuan hil zen,  
basilikarako  
dirua lortzera  
zihoala*

esaten aurkakorik. Hala, urte hartako abenduaren 5ean, Pablo Lete Kubarantz joan zen, ustez basilikarendako dirua batzeko. Eta horretarako, Arantzazuko Santutegiko bitxiak zeramatzala uste dute, haiiek saldu eta dirua ekartzeko bueltan. Baina aben-

duaren 6an hegazkin istripua izan zuen eta hil egin zen.

## ATZERAPENAREN BERRI

Ustekabe handia izan zuen hura, baina hura izan ezik, bazirudien ez zela beste ustekaberik basilikaren gainean. Horregatik, proiektuaren bultzatzaileak ezustean harrapatu zituen jakiteak obrak atzeratuta zebiltzala. Are gehiago, abisatu barik proiektuan aldaketak egin zituztela salatu zuen Damian Lizaur arkitektoak. 1954a iritsi zen, eta baita joan ere. 1955eko otsailan une kritikoa zen lanak.

Azkenean, 1955eko abuztuaren 30ean bedeinkatu zuten basilika eta herritarrendako zabaldu zuten. Eta espero zuten 1956ko irailean kotsakratuko zutela, baina 1969ko abuztuaren 31n kotsakratu zuten.

Obren atzerapenaren arazoia izan zen proiektua egin zuten bi arkitektoak (Saenz Oitza eta Laorga) banandu egin zirela. Kontuak kontu, azkenean atzerapen hark on egin zion emaitzari; izan ere, Saenz Oitzak aldaketa ugari sartu zituen proiektuan. Eta aldaketek arintasuna eman zioten eraikinarri, modernitate kutsu handiagoa eman zion.



# PROFESIONAL *liberalak*

## AHOLKULARITZA

**ASEGI AHOLKULARIAK**  
Otalora Lizentziatua 4. Arrasate  
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

### **URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**

Otalora 16, solairuartera, esk. Arrasate  
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85  
uribesalgoe@euskalnet.net

## APAREJADOREAK

**JUAN MARI OSINAGA**  
Zerkaosteta 17 behea  
Tel.: 943 79 67 78/ Faxa: 943 77 10 09  
zutarri@infonegocio.com

## ABOKATUAK

### **LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER**

Iturriotz 15, 1. A. Arrasate  
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08  
altu-lasa@conet.es

## BITART

### **Larraitz Ugarte Maidor Morras**

Nafarroa etorbidea 23  
Arrasate  
Tel.: 943 71 25 22 / 943 71 25 23  
Poltsikokoa: 659 59 71 21

# Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 25a

403. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

## Etkez etxeko laguntza zerbitzuak beste arautegi bat izango du laster

MIRARI ALTUBE

Udalak ematen duen etkez etxeko laguntza zerbitzuak beste arautegi bat izango du urtariletik aurrera. Horretarako hitzarmena sinatuko du Udalak Foru Aldundiarekin. Hori guztia onartu zuen udalbatzarrak joan zen asteko osoko bilkuran.

Ezindu, gaixo eta adinekoei ematen dieten etkez etxeko laguntza zerbitzuak aldaketak izango ditu urtariletik aurrera. Aldaketak izango dira beste arautegi bat onartuko duelako Udalak, baina erabiltzaileek ez dute igarriko ezer berririk zerbitzuan.

### ZERBITZUA BATERATZEKO ASMOA

Etkez etxeko laguntza zerbitzua Udaleko Ongizate Sailaren eskutan dago, baina Foru Aldundia-rena da ardura. Orain arte herri bakoitzak askatasuna izan du zerbitzua antolatzeke orduan; hala, prezio eta ordutegi erabat ezberdinak daude Gipuzkoan bertan. Hori bateratu guran eta zerbitzua hobetzeko asmoarekin arautegia adostu du Foru Aldundiak. Gipuzkoako herri guztietan jarri gura du abian, eta joan zen asteko osoko bilkuran onartu egin zuen udalbatzarrak. Gainera, hitzarmena sinatuko du Arrixtu Oliden alkateak Aldundiko Gizarte Ekin-tzarekin, zerbitzua kudeatzeko ardura Udalak har dezan.

Udalbatzarrean hartutako erabaki bi horiek ikusgai egongo dira eta alegazioak aurkezteko aukera egongo da. Alegaziorik egon ezean onartu egingo dute eta,

hala, urtarrilaren 9an jarriko dute abian arautegia.

### ARAUTEGIA BALORAZIOAK EGITEKO

Aretxabaletan Gizadi enpresak ematen du etkez etxeko zerbitzua. 22 langile inguru ditu eta aurtan berritu dio kontratua Udalak urtebeterako. Beste arautegi

bat jarri arren abian urtarrilean, ez langileek, ez erabiltzaileek ez dute aldaketarik igarriko. Arautegia balorazioak egiteko erabiliko dute Ongizate Saileko arduradunek, eta haren arabera, ezindua denari Aldundiak emango dio laguntza eta autonomia denari Udalak.

*Zerbitzua kudeatzeko ardura Udalak izan dezan hitzarmena sinatuko du alkateak*

*Arautegia balorazioak egiteko erabiliko dute Ongizate Saileko arduradunek*



Foru Aldundiak Udalei eman gura die etkez etxeko laguntza zerbitzuaren ardura.



KURTZEBARRI ESKOLA

Ohiturari jarraituz Neguko Jaia egingo dute abenduaren 1ean, eguena.

## Herrien ohiturak landuko dituzte giza balioen astean

M.A.

Azaroaren 28a eta abenduaren 2a bitartean giza balioen astea egingo dute Kurtzebarri eskolan. Urtero egiten dute, eta aurtan, munduko beste herrialde batzuk ezagutzeko bidea emango diete irakasle zein ikasleei. Abenduaren 1ean, gainera, Neguko Jaia ospatuko dute.

Munduan beste herrialde batzuk ere badirela ezagutarazi gura die Kurtzebarri eskolako irakasleek ikasleei. Gainera, beste ohitura batzuk dituztela azalduko diete, eta zela bizi diren, zer jaten duten, zela egiten duten berba... eta beste horrenbeste kontu landuko dituzte astelehenean, azaroaren 28an, hasiko duten giza balioen

asteen. Sahara, Portugal, Kolonbia, Mexiko, India, Bolibia eta Mozambique herrialdeetako ezagarrirako batzuk ikasiko dituzte datorren astean ume eta gazteek.

### NEGUKO JAI EGUENEAN

Munduko herrialdeek bakarrik ez, Euskal Herriak ere izango du bere lekutxoa giza balioen astean, eta abenduaren 1ean, eguena, Neguko Jaia egingo dute Iturrigorri frontoian. Gure ohiturak gogoraziko dituzte egun horretan, eta jaiari hasiera txalapartarekin emango diote. Irrintzi lehiaketa egingo dute gero eta Larrain dantza guraso, ikasle eta irakasleek dantzatzeko dute. Eta amaitzeko, oinak berotu ostean barrua berotu behar dela-eta, gaztaina erre-ak eta buzkantzak eskainiko dizkiete hurreratutakoei.

Altzariak

Diseinua

Apainketa



Mobiliario  
ARENZA



Bizkaia 1 ARETXABALETA Tel.: 943 79 08 07

## FARMAZIENTXANDA

ZAPATUA, 26  
FRAILE Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

DOMEKA, 27  
FRAILE Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

## TELEFONOAK

### OROKORRAK

Almen .....	943 71 49 07
ARETXAGAZETA .....	943 79 86 21
Faxa .....	943 77 18 54
Basotxo .....	943 77 09 81
Euskaltegia .....	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea .....	943 71 18 62
Industrialdea .....	943 79 62 80
Institutua .....	943 79 79 00
Kirol etxea .....	943 71 26 28
Kultura etxea .....	943 71 10 27
Gazteria saila .....	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola .....	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI .....	943 79 57 40
KZgunea .....	934 79 94 44
Liburutegia .....	943 71 18 62
Loramendi EE .....	943 77 09 70
Ludoteka .....	943 79 05 81
Mankomunitatea .....	943 79 30 90
Murruxio ME .....	943 79 93 74
Musika Eskola .....	943 79 36 50
Osasun etxea .....	943 71 19 59
Otalora .....	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) .....	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola .....	943 77 03 77
Postetxea .....	943 79 28 31
Basabeazpi Ikastola .....	943 71 21 18
Taxi geltokia .....	943 77 12 64
Udal Bulegoak .....	943 71 18 62
Udaltzaingoa .....	943 71 18 63
Urats Gain .....	943 79 99 11

### UDALTZAINGOA

Arrasate ..... 943 79 14 39 |

### LARRIALDIK

SOS Deiak .....	112
Eskualde Ospitalea .....	943 03 53 00
Ertzaintza .....	943 79 71 99
Gurutze Gorria .....	943 76 55 76
Larrialdiak .....	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) .....	943 78 28 00

## MEZAK

### ANDRA MARIAREN ZERURATZE

PARROKIA  
Domeketan: 11:00, 12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Hiletak: 19:00

### SANTA RITA

Domeketan: 09:00  
Zapatuetan: 18:30  
Lanegunetan: 19:00

### BASERRI AUZOETAN:

AOZARATZA  
Domeketan: 12:30.  
MENDIOLA  
Domeketan: 11:30 (Otoitzaldia bakarrik)

### GELLAO

Ez dago mezarik.



Lehenengo zatia panel bidez erakutsi zuten, baina oraingoan proiektua bakarrik dago.

## Araba ibilbidetik doan tranbiaren zatia ikusgai

M.A.

**Araba ibilbidean hasi (Arkarazora doan bidegurutzean hain zuzen) eta Eskoriatzara joango den tranbiaren zatia ikusgai dago udaletxean. Hainbat aldaketa proposatzen ditu, eta ikusi gura duenak abenduaren erdialde arte izango du astia.**

Aretxabaletan bi zati izango ditu tranbiak: lehenengoa Arrasatetik datorrela Arkarazoko bidegurutzeraino eta bigarrena Eskoriatzara doan tartea. Hain zuzen, bigarren zati hori dago ikusgai udaletxean, eta alegazioak aurkez diezaioke interesatuek abenduaren erdialdera bitartean.

### ERROTABARRI BASERRI ONDOTIK

Araba ibilbidean (Arkarazoko bidegurutzean) hasi eta Errotabari baserri ondo-ondotik Eskoriatzara aterako da tranbia, Eusko Jaurlaritzak egindako proiektuaren arabera. Horrek hainbat aldaketa eragingo ditu errepidean: Fagor Automation parean dagoen biribilgunea Almen parera eramango dute. Hain zuzen, Aretxabaleta eta Eskoriatzara arteko muga geratuko da, eta Almen ikastetxera doan bidea ere aldatu egingo dute; bide zaharra erabiliko dute berriro.

Aldaketok aretxabaletar bati baino gehiagori eragingo dio; hortaz, proiektua ikusi gura izanez gero udaletxean hitzordua egin behar da aurrez.

### LEHENENGO ZATIARI ERANTZUNA

Tranbiaren lehenengo zatia otsailan egon zen ikusgai, eta alegazio asko aurkeztu zizkioten, bai herritarrek, bai Udalak. Azken horren proposamena izan zen Deba ibaiaren beste aldean egingo dituzten etxebizitzentzako albotik egingo den ibilbidea; hala, Durana eta Mitarte kaleetatik pasatu barik. Proposamen horiek abenduaren 13an egingo duten Diputatuen kontseiluan eztabaidatuko dituzte.

## LABUR

### 'Hego eta Ertamerika bizikletan' emanaldia Loramendi EEk antolatuta, eguenean

Hego eta Ertamerika bizikletan emanaldia egingo du Txotxek, Loramendi EEren eskutik. Abenduaren 1ean izango da, eguena, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

Bestalde, abenduaren 3an, zapatua, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu. Loramendi EEk egitarau apala antolatu du umeendako. 11:30ean, tailerrak egingo dituzte Herriko Plazan, 13:00etan Jaxintok euskararen aldeko mezua botako du, eta 18:00etan gaztaina beroak eta sagardoa eskainiko ditu Gazte Ekimenak.



### Kalejira eginez ospatu zuten Santa Zezilia

Santa Zezilia eguna ospatu dute astean musikariek; martitzenean, hain zuzen. Eguna girotzeko Leizarra musika eskolako irakasleek kalejira egin zuten herrian eta Basabeazpi ikastolara eta Kurtzebarri eskolara hurreratu ziren. Pozik hartu zituzten umeek doinu hotsak: harritura jangelan bazkaltzen zeudenak eta dantzari patioan jolasean zebiltzanak. /M.A.

## Dorleta taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8  
Aretxabaleta  
Tel.943 79 94 15



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51  
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:

**Lyonel Arquero**

Dekorazioa:

**Soraya Arquero**

**TABERNA**  
**ARLUTZ**  
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42  
ARETXABALETA

Jou Diaz  
Harakina

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

**BENGOA**  
**URDAITEGIA**

Bertako okelak eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 19 79

# Laugarren postuan dago aurten sortu den areto futboleko taldea

M.A.

Aurten sortu dute UDAko areto futboleko taldea, baina ez dabil batere gaizki. 9. jardunaldia jokatu dute zapatuan, azaroak 26, eta sailkapeneko laugarren postuan dago 13 punturekin. Donostian jokatu du bihar, Amara Kirol Elkartearen aurka.

Taldea sortu eta denboraldia hasi zutenean ez zekiten zelako taldeak izango zituzten aurrean, baina eurak ere badirela zerbait erakutsi dute, eta momentuz igora postuetan daude.

## ONDO PASATZEA HELBURU

Futboleko ibilitako hiru lagun elkartu eta inguruko jendea mugitzen hasi ziren orain hilabete batzuk. Halaxe sortu zuten areto futboleko taldea, eta Gipuzkoako ligako hirugarren B mailan jokatzen du. Gainera, helburu bakarrekin hasi ziren jokatzen: "Ondo pasatzea izango zela helburua esan genuen eta denok jokatu genuela", dio taldeko jokalaririk Martin Antxiak. Hala, ez dute behar entrenatzailearik: "Bakoi-tzak hartu genuen konpromisoari ez diogu hutsik egin eta ez dugu antolatzeke inor behar". Hori bai, aldaketa handia izan da areto futbolaren neurrietara ohitzea.

Talde bi daude indartsuak: Anoetako Gazte Asanblada eta Tolargi. Ondorengo zazpiak antzera dabiltzala adierazten du sailkapenak, eta UDA laugarren postuan dago beste birekin berdinduta.



Martutenen jokatuako partidu ostean argazkia atera zuen areto futboleko taldeak.

## MARTUTENERA JOKATZERA

Martuteneko espexera joatea egokitu zaie aretxabaletarrei. Izan ere, presoek osatutako Mar-

tu Kirol taldeak jokatzen du euren mailan. "Beldurtuta hasi genuen partidua, baina inoiz jokatu dugun garbiena izan zen. Faltak egin orduko barkamena eskatzen ziguten. Kantxa eskasa daukate eta aurten, gainera, ez diete uzten puntuaketa sartzeko; hortaz, haserre dabilta", dio Martinek.

Taldeak badaki partidu gorrak dituela, baina ilusio handiarekin dabil. Igoera postuei eusteko gai izanez gero, ederto, eta bestela ondo pasatzea dute helburu. Bihar, Donostian jokatuko dute Amara Keren aurka.

*"Martutenen guztiz beldurtuta hasi genuen partidua, baina jokatu dugun garbiena izan zen"*

## LABUR

### Reala-Real Madril partidua ikustera joateko autobuserako izena eman behar da Arlutzen

Autobusa aterako da domekan Aretxabaletatik Realaren eta Real Madrilaren arteko partidura joateko. Horretarako, baina, izena eman behar da aurrez Arlutz tabernan gaur, egubakoitza, 20:00ak baino lehen. Izena ematerakoan bazkide agiria aurkeztu behar dute interesatuek eta 2 euro ordaindu. Autobusa 17:00etan aterako da domekan, Azbe lantegi pareko geltokitik.

### Mendi Astea hasiko du domekan Murruxiko MEk, irteera eta babarrun jana eginda

Domekan, azaroak 27, hasiko du Murruxiko MEk Mendi Astea; mendi irteera eta babarrun jana egingo dituzte. Astelehenean, azaroak 28, Gure Himalaia emanaldia eskainiko du Alberto Inurra-tegik; martitzenean, Laos bizikletan, Oier Sarasuak; eta eguaztenez, Mendi eskia Txilen, Ramon Iturrikastillok. Kurtzebarri eskolako aretoan izango dira hirurak, 19:00etan.

### Bigarren eta hirugarren mailako kadeteek partiduak dituzte gaur arratsaldean

Gipuzkoako Pilota Txapelketako lehenengo fasea bukatzen dabil eta kadeteek partiduak dituzte gaur, 19:00etan, Iturrigorri frontoian: bigarren mailakoek, Akizu eta Gardokik, Lazkaoko pilotariak izango dituzte aurrez aurre; eta hirugarren mailakoek, Uriarren eta Perez de Labeagak, Mundarro elkartekoak.

## PARTIDUAK

### FUTBOLA

#### UDA-Gazteak

Bigarren mailako erregionala. Zapatua, 15:30. Ibarra.

#### UDA/Arizm.-Euskalduna

Lehen mailako kadeteak. Zapatua, 11:30. Ibarra.

### PILOTA

#### Aretxab. - Lazkao

Bigarren mailako kadeteak.

#### Aretxab. - Mundarro

Hirugarren mailako kadeteak. Egubakoitza, 19:00. Iturrigorri.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

#### UDA 1 Irun 1902 1

Preferentea.

#### Eibartarrak 2 UDA 3

Bigarren mailako erregionala.

#### Hondarribia 3 UDA/Arizm. 0

Ondorengo gazteak.

#### UDA/Arizm. 1 Segura 2

Lehen mailako gazteak.

#### Idiazabal 0 UDA/Arizm. 8

Lehen mailako kadeteak.

#### Ilintxa 2 UDA/Arizm. 0

Bigarren mailako kadeteak.

#### UDA/Arizm. 3 Beasain 2

Ondorengo infantilak.

#### UDA/Arizm. 2 Eibar 1

Infantil txikiak.

#### Urki 3 UDA/Arizm. 3

Emakumezkoen liga (seniorrak).

#### Urola 6 UDA/Arizm. 2

Emakumezkoen liga (kadeteak).

#### UDA/Arizm. 7 Kurtzebarri 0

Emakumezkoen liga (infantilak).

#### UDA 8 Rehau 1

Areto futbola.




Herriko plaza Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 09 33

## GARBITU S. KOOP

Garbiketa  
orokorrak

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28




ZATOK GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 92 01

Aretz

Markole 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA

Plater konbinatuak  
Ogitartekoak  
Hanburgesak  
Pizzak  
Oilaskoak eta  
paellak eramateko



Matikua  
jaketxea

Azatza auzoa  
ARETXABALETA  
943 79 16 68

Karlos

Harakina

Santa Kurtz 5  
Tel.: 943 71 25 54  
20550 ARETXABALETA

JAUSORO OSTATUA

Durana kalea 18 1.ESK  
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69  
Sakelakoa: 656 74 81 61



## ATREBENTZIA EZ PADA / Gabonetako apaingarri eta jakixek jarri dittue kale eta dendetan. Agudo ez da?



MARIA JESUS BENGOA  
Langillie



SILVI CARRANCIO  
Langillie



KARMELO AZKOITIA  
Langillie



BEATRIZ URKIA  
Langillie



JOSEBA GOMEZ  
Langillie



MANUEL MUÑOZ  
Langillie

Oso aguro. Lehen, Kontzezio inguruen jarten euen; oin, Santu Guztixetan; eta goiezen martxan, abuztuen jarriko duskue. Kontsumuen jaixe da argi eta garbi, Gabonek ez daukie beste espiriturik.

Giroketan fan gaittezen izengo da. Soldatak igo biherko duskue oin erosketak egitteko; baiñe Gabonak dotozela eta etxie hankaz gora ez dou jarri biherko, ez? Hala eta be, asko gastauko dou.

Ez, ez da aguro; giro politte sortzen daue apaingarriok, eta Gabonetako egunean bakarrik ez, denpora luziauen egoteko zeatik ez jarri ba? Izen be, bizipoza eta jai girue biher dittugu.

Bai, oso aguro da; bai turroi, bai jostailluek aguruegi jarten dittue. Denda danak beteta dauz, fan eta erosi besterik ez daukou. Hamabost egun lehenau jarritte nehikue dala pentsetan dot.

Halaxe izeten da norma-lien. Lehenbailiehen kome- ni jakue hastie saltzen saltokixe, diru gehixau atarateko. Marketin barruen sartute gauz, eta halaxe etorten die Gabonak.

Aguro? Ez. Saltoki haundi-xetan aspaldi dauz jarritte; hortan, geu be saltzen hasi biher dou lehenbailiehen. Baiñe iguel agurotxo da, bai. Loterixie bera oin dala hiru hillebete hasi zien saltzen...

## TXALOK ETATXISTUAK



**TXISTUAK ZAINDU BAKO LORATEGIA** Herriko lorategi gehienak txukun zaintzen dizkigute eta dotore egoten dira uda zein negu. Argazkikoa industrialdeko E pabilioiaren alboan dago, eta jarri zutenetik ez dakit inork kasurik egin dion. Belarra goraino hazita, zikin-keriak han eta hemen... Zeinen ardura ote da? Industrialdearena ala Udalarena? Zerbait egin beharrea, behintzat, badago. / M.A.

## ORAIN DELA 3URTE ARETXABALETAN

**Txabolak eraiki zituzten Urkulura doan bidegorrian**

Bainuetxeko industrialdetik Urkuluraino egin zuten bidegorria- ren ertzean txabolak eraiki zituzten. Industrialdea egin aurretik hantxe txabolak zituzten jabeendako eraiki zituzten, 10 guztira. Udalak jakinarazi zien aisialdi- rako bakarrik erabil zitzaketela. Inguruan ortua jarri zieten askok.



## ASTEKODATUA

# 205

**MILA EURO ERABILIKO DITU UDALAK URKULU BERRITZEKO**

Udalak Naturgintza fundazioare- kin Urkulurako proiektua egin du. Lan horiek ia 205 mila euro- ko aurrekontua dute, eta astean atera da lanak egiteko deialdia. Hiru hilabete iraungo dute.

## BESTEKE SANA

**“Euskal Herriko campusak ez dira film amerikarretan ikusten ditugun horiek bezalakoak. Telesail eta film ospetsu askok unibertsitatearen inguruko aurreiritzi morboso, pinpirin eta glamouroso bat sortu nahi izan dute. Baina, orain arte behintzat, Euskal Herriko unibertsitateetan ez dugu futbol taldeak kolorezko ponpoiekin animatzen dituen neskatorik; edo hainbesteko buruko minak sortzen dituzten popularitate —edo ospe— lehiaketarik; ezta bikoteka soilik joan daitekeen ikasturte bukaerako dantzaldi ospetsurik ere. Unibertsitatea neska eta mutil guapoen erresuma izateaz gain, sexualitatearen paradisua dela saldu nahi izan digute film amerikarrek.**

LARRAITZ ARANDO  
'Gaztetxulo' aldizkaria/05-11-04

## HERRITARREN BERBAK / Arrate Arkauz



*Ez dezagun itxoin bost minutu*

**P**untualtasunari buruzko artikulu bat irakurri nuen pasa den astean. Egia esan, harrezkero, behin baino gehiagotan etorri zait gogora irakurritakoa. Bilerak batera joatea tokatu zitzaidan eta arraioa! Ez zuten ordua errespetatu. Jende gehiago etorriko zela eta 5 minutu itxoin behar genuela. Semealabak, laster joango nintzela esanda utzi nituen amarekin eta 5 minutu alferrik galduta! Pasa ziren minutuok eta beste pare bat itxoingo genituela... azkenean, hamar bat minutu pasatu ziren hasi orduko.

Ordu bete ingurukoa izango zela esana nion amamari eta nire ordua iritsi zenean, alde egin behar. Nik ordaindu behar dut beste batzuen puntualtasun eza? Nik ezin izan nuen bilera osoa jarraitu eta garaiz joan nintzen. Ordurako etorri ez zenak, ordea, bazekien berandu zetorrela eta zerbait galduko zuela, baina azkenean berak irabazi zuen dena. Hurrengoan ere, berdinekin egingo du...

Beste lagun bati, antzekoa gertatu zitzaion ile-apaindegian. Aurrez deitu ordua hartzeko, ile-apaintzaileari ondo zetorkionean eman, nire lagunak onartu eta joan beharreko egunean, ordurako joan zen arren, hiru ordu laurden itxoiten egon behar. Zergatik ez zion beste ordu edo egun baterako eman? Eta ile-apaindegian itxarotea tokatzen zaionari txutu-mutxuen aldizkariak ez bazazkio gustatzen zer arraio egingo du hainbeste denboran zain?

Leku guztietan, "itxaron gelak" txikiagoak izan beharko lirakeela uste dut.

ile-apaindegian, medikuarenean... ordua emanda joaten garen toki guztietan. Agian ez dago ondo esanda bezeroak beti duela arrazoa, baina nire ustez, auke- ra egiteko eskubidea badu behintzat. Hurrengorako *agur ben ur!*

Ez dakit nola deitu, batzuetan berekoieria, bestetan ganorarik eza, baina ordua errespetatzen duenarekiko errespetu falta da. Ni ez naiz munduko puntualena, nire amak ondo baino hobeto erakutsi didan arren...

**“Batzuetan berekoieria, bestetan ganorarik ez, baina ordua errespetatzen duenarekiko errespetu falta da”**

**Aretxagazeta**

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Mirari Altube

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagakoko  
Udala

# Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 25a / 232. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolara 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Pirritx eta Porrotxen ikuskizunaren estreinaldia

IKER BARANDIARAN

**Urtero moduan, Pirritx eta Porrotx pailazoen Eskoriatzan estreinatuko dute euren ikuskizuna. Bihar, zapatua, egingo dute kiroldegian, Axtrokiren eskutik.**

Urteroko hitzordu bihurtu da Pirritx eta Porrotxen bisita. Ondo dakite hori herriko ume eta gurasoek. Izan ere, dagoeneko zortzigarren aldia da herrian ikuskizuna egiten dutena.

Pailazoak, Axtroki elkarteak eta herriko umeak ondo konpontzen diren seinale. "Hasieran ikuskizun txikiagoak egiten hasi ginen. Gogoan daukat lehe-

nengo hiru saioak pilotalekuan izan zirela. Oso harreman ona egin genuen, eta handik aurrera ikuskizunen estreinaldiak egiten hasi ginen kiroldegian", azaldu zigun Pirritxek.

Bihar, zapatua, egingo dute kiroldegian. 17:00etan izango da, eta txartelak 5 eurotan daude salgai ibarreko herri gehienetan. Horrez gain, Axtrokik aditzera eman digu sarrera mugatuak izango direla.

**IJITOENGANAKO AURREKARIAK ALDATU** Pirritx eta Porrotx pailazoen *Maite zaitut* lana estreinatuko dute. Protagonistak Romi eta Anakleto ijitoak dira. "Zelanbait gura dugu ijitoenganako dauden aurreka-

riak ezabatu. Ume batzuei entzuten diegu ijitoen gainean txarto berba egiten, eta hori aldatu egin gura dugu", azpimarratu zuten.

### MUSIKA ETA DANTZA UGARI

Balkanetako Romi ijitoa Euskal Herrian bizi den Anakleto aitona eta pailazoak bisitatzera etorriko da. Romik Katiuska hartza

*'Maite zaitut' ikuskizuna estreinatuko dute bihar, zapatua, kiroldegian*

*Ijitoenganako aurreiritzien gainean hausnarketa egin gura dute*


berarekin ekarriko du. Katiuska Euskal Herriko mendietan gelditzen den hartz umezurtz bakarrarekin bizitzen geldituko da. Beste lagun batzuk ezagutuko dituzte: asto rockzalea, erle hip-hoperoa... Guztiek hainbat abentura bizi izango dituzte.

Ikuskizunak ordu eta hamar minutu iraungo du, eta hainbat kantu eta dantza saio tartekatuko dituzte.



PIRRITX ETA PORROTX

'Maite zaitut' da ikuskizun berriaren izena.




### Benito Lertxundirako sarrerak salgai

Datorren egubakoitzean, abenduaren 2an, Benito Lertxundik 40 urtez ikasten egonak zuzeneko diskoa aurkeztuko du kiroldegian, 22:30ean. Orain dela 4 urte, Lertxundik kiroldegia lepo bete zuen eta bi orduko emanaldia egin zuen. Zuzeneko diskoan hainbat sasoitako abestiak batu ditu, hemeretzi guztira. Hainbat herritan daude salgai sarrerak: Eskoriatzan, kiroldegian, Mirentxu tabernan eta Dorleta liburu-dendan; Aretxabaletan, Arlutzen; Arrasaten, Monte tabernan; Bergaran, Bilintxen; eta Oñatin, turismo bulegoan. / I.B.

### LABUR

### Domekan, umeendako 'Ahmed, Alhambrako printzea' filma, Ibarraundin

Orain dela gutxi, Udalak agindu zuen hamabostean behin umeendako filmak euskaraz emango zituela Ibarraundi museoan. Hilaren 13an, *Harry Potter eta sorgin harria* eman zuten, eta oso harreman ona izan zuen. Domekan, hilaren 27an, bigarren saioa egingo dute. Aukerátutako filma izango da *Ahmed, Alhambrako printzea*. Lan horrek 83 minutu irauten du, eta euskaraz emango dute. Interesatuek euro bat ordaindu beharko dute.



BAILARAKO OPTIKA

ITZIAR UGARTE

*Optika Audiometria Betaurrekoetan azken joerak*

Arrasate pasealekua 35, ARRASATE. 943 08 26 87  
Eskola Politeknikoaren ondoan

## TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Astroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

## OHARRAK

### ETZI, DOMEKA, FUTBOL ARETO NORGEHIAGOKAK

11:00etan, jubenil mailako taldeak Lasarte BHI izango du aurkari. 16:00etan, berriz, ohorezko ligako taldea CD Izarra Gorriren kontra lehiatuko da. Bukatzeko, 18:00etan, 1. mailako taldeak Elorrio izango du aurkari.


### ETZI, DOMEKA, UMEENDAKO FILMA, IBARRAUNDIN

Etzi, domeka, *Ahmed*, *Alhambra*ko printzea filma emango dute Ibarraundi museoa, 17:30ean. Euskaraz izango da.

## ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

HORTZ  
KLINIKA

Eduardo Gorosarri 3-1. esk.  
Tel: 943 71 47 36  
Eskoriatza



Santa Marina auzoan hainbat etxebizitza egingo dituzte, horietatik 28 tasatuak.

## Santa Marinako etxeak eta berdintasuna berbagai

IKER BARANDIARAN

Atzo, eguna, hilabeteko osoko bilkura egin zuten udaletxean. Oraingoan ez zen polemika askorik izan, eta hortaz ez zen eztabaida askorik egon. **Berdintasuna, Santa Marinako etxebizitzaren proiektua, etxez etxeko laguntzak eta beste izan ziren mozioetan landutakoak.**

Atzoko osoko bilkuran aurkeztutako mozioetako bat izan zen Santa Marinako etxebizitzaren proiektuaren gainekoa. Lurzoru horretan, 142 etxebizitza egingo dituzte, eta horietatik 28 tasatuak izango dira, hau da, Udalak bultzatutakoak. Udalak aditzera eman zuen etxebizitza bakoitza 180.000 eurotan gutxi gorabehera salduko dutela. Etxebizitzak egiteko eta ingurua urbanizatzeko hainbat eskaintza jaso dituzte, eta onartzekoa zen zer enpresak egingo dituen lan horiek.

Bestalde, Udalak aditzera eman zuen etxez etxeko laguntza

zerbitzuan aldaketa batzuk egin gura dituztela, eta hori izan zuten berbagai. Eudelek eta Aldundiak hitzarmen bat egin dute zerbitzu hori Gipuzkoako herri guztietan bateratzeko. Horren arabera, zerbitzu hori ematen duen langileak orduko 13 euro jasoko ditu. Behin hori onartuta, aditzera emango dute araudia.

### BERDINTASUNAREN ALDEKO MOZIOAK

Horiez gain, Ezker Batuak taldeak berdintasunaren aldeko mozioak aurkeztu zituen. Horietako baten eskatu zuten berdintasunaren alde egiten ez duten herriko elkarteek diru-laguntzarik ez ematea. Horrez gain, talde berak Emakumeen kontrako Tratu Txarren egunaren harira, manifestu bat irakurri zuen, praktika hori gogor salatuz.

Beste gai batzuk ere landu zituzten atzoko osoko bilkuran. Hain zuzen ere, Mendiolako pinudi baten salmenta zehaztea; iraganean Hezkuntzarena zen etxebizitza baten salmenta; eta beste batzuk.

*Santa Marinako etxebizitzak eraiki eta ingurua urbanizatzeko kontratazioa*

*Tratu txarren eta berdintasunaren gaineko mozioak aurkeztu zituen EB taldeak*

## Udalak eta Bidegik, konpromisoak zehaztuta

I.B.

Joan den astean, Bidegik eta Udalak autobidearen gaineko batzarra egin zuten Donostian. Datorren batzarrerako (abenduaren 15a) hainbat etxekolan zehaztu zituzten. Horrez gain, erabaki zuten astean behin autobidearen lanetako segurtasun arduradunak herritarren kezka argitzea.

Hilaren 17an egin zuten batzarra Udaleko ordezkariak eta Bidegiko arduradunak. Lanen hainbat puntu izan zituzten berbagai: hau da, Arlabango tunela, Ixispil Zarimutza sarrera, Mazmelako, Uztarretako, Apotzagako hondakidegirako bideak eta beste. Udalak berriro jarri gura dituen bide-

en zerrenda egin beharko du. Notario-aktei dagokionez, Bidegik aditzera eman zuen herritarren kezka jasoko dituztela Santa Anan, Bibliotekan, Oletan...

Drainatzei dagokionez, elkarlanean konpontzea adostu zuten, eta Udalak horren gaineko listatu bat egin beharko du. Bestalde, Antontxuko harri-lubeta ere berbagai izan zuten. Eta, besteak beste, zaraten gaineko azterketa egitea adostu zuten.

Bidegik salatutako gehiegizko desjabetzeen errua Ferroviali leporatu zion, eta kasu horien zerrenda egitea erabaki zuten.

Horrez guztiaz gain, Bidegik eta Udalak adostu zuten lanen segurtasuneko arduradunak harrera egingo diela herritarrei udaletxean, astean egun batean.



## Santa Zezilia ospatu zuten

Martitzenean, hilaren 22an, kontzertu berezia egin zuten Ibarraundi museoko aretoan, Santa Zezilia eguna ospatzeko. Gasteizko Kontserbatorioko musikari gazteek esku hartu zuten, musikagintzaren promesa direnak: Ane Urkiola, Mikel Ibañez eta Haizea Lizarazu biolin jotzaileak; Itsaso C. de Bergara klarinete jotzaileak; eta Haizea Lizarazu piano jotzaileak, hain zuzen ere. Besteak beste, Mozart, Shostakovic eta Milhauden piezak jo zituzten, eta aretoa gainezka egon zen, oso harrera ona izan zuten-eta. / ARGAZKIA: JUAN LUIS MERINO

## Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25  
ESKORIATZA

## TOKI ALAI TABERNA

Karajiloetan  
espezializatua

Tel.: 943 71 47 29  
ESKORIATZA

## AZKOAGA ESTANKOA

943 71 48 77  
Zure  
Zerbitzura

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

**LENIZ**  
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

**SUZUKI**

Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko azaroaren 25a / 173. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Hegazti-gripena dela-eta analisiak egin behar ditu Foru Aldundiak

UBANE MADERA

Hegaztien gripearri aurre hartzeko helburuarekin egin behar dituzte analisiak, prebentzio moduan. Hala, Aramaion, oilo, oilasko edo ahateak dituzten guztiek Udalera joan beharko dute edo hara deitu (945 44 50 16) azaroaren 30a baino lehen.

Udaletxean izena hartuko diete eta txanda eman. Gero, teknikari bat joango zaizkie hegaztiei frogak egitera baserrira, oilategira edo behar den lekura.

### OILATEGI GUZTI-GUZTIETAN

Izan ere, Arabako, eta ondorioz, Aramaioko oilategi guztietan egin behar ditu Arabako Foru Aldundiak frogak horiek, nahiz eta oilategiak txikiak izan eta hango hegaztiak etxeko kontsumorako bakarrik izan.

Diputazioaren asmoa da erregistratuta dauden oilategi profesionaletan egitea lehenengo analisiak (Aramaion ez dago halako esplotazio handirik). Eta gero, autokontsumorako diren oilategi txikiak hegaztiei egitea. Hain zuzen ere, laginak har-



Oilategi txiki zein handietan egingo dituzte analisiak; argazkian, Aramaioko oilo batzuk.

tuko dizkiete hegaztiei, haiek analizatzeko. Agertzen diren hegaztien gorpuak, berriz, laborategira eramango dituzte, haiek ere aztertzeko.

Oilategiko hegaztiez gainera, itxian hazitako hegazti basatiak ere kontrolatzeko asmoa du Foru Aldundiak.

Analisi guztiak azaroan hasi eta otsailean bukatuko dituzte, horixe da-eta geurean hegazti-migratzaile gehien ibiltzen den sasoa.

### EHIZTARIEK ERE ZAINDU BEHAR

Era berean, ehiztari elkarteek eta hegaztiekin ibiltzen diren bes-

telako elkarteek (albaitariak...) hegazti basatien artean (berezi-ki uretako hegaztien artean) ohikoa ez den edozein heriotza ikusiz gero edo gaixotasun agerraldi esanguratsuren bat ikusiz gero, berehala abisatu beharko dute.

### SEGURTASUN NEURRIAK

Horrez gainera, zenbait segurtasun neurri hartzea gomendatu du Foru Aldundiak. Esaterako, ahal den guztietan saihestu egin behar da hegazti basatien (uretakoak, bereziki) eta oilategiko (ahate eta antzarak, batez ere) hegaztien arteko kontaktua.

Hegaztiak dituzten esplotazio guztiek ziurtatu egin beharko dute etxeko ahate eta antzarak oilategiko gainerako hegaztiengandik bananduta daudela.

Eta bestelakoan artean, Diputazioak debekatu egin du Diputazioaren baimen barik hegaztiei txertoa ipintzea. Txerto guztiak Diputazioko Nekazaritza Sailaren zaindartzapean ipini behar dira.

Bestalde, Aldundiak debekatu egin du, baita ere, hegaztiak azoka, erakusketa eta bestelakoetan ipintzea. Debeku hori abenduaren 5era artekoa da, behin-behinera-ko; gero luzatu egin dezake.

## Euskara ikasiz gero, Udalak diruz laguntzen dio herritarrari urte osoan

U.M.

Udalbatzarraren azkeneko osoko bilkuran bertan onartu zuten euskara ikasteagatik laguntza ematea. Izan ere, dirulaguntzen araudian onartutako ikasketaren bat eginez gero, urteko edozein momentutan eska daiteke dirulaguntza.

Hiru kasutan eska daiteke euskara ikasteko dirulaguntza. Hori bai, eskatzailea Udalean errolatuta egotea ezinbestekoa da.

Batetik, euskaltegi publiko eta homologatuetan ikasten dutenek matrikularen %80 jaso deza-

kete. Hori lortzeko, asistentziaren %80 egiaztatu behar dute. Beste zentzoren bat edo beste metodoaren bat aukeratuz gero, berriz, euskaltegi publikoen kostua hartuko du Udalak oinarri moduan. Bestalde, barnetegietara edo ikas-

taro trinkoetara joaten direnek kostuaren %80 jaso dezakete.

### UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Bestetik, Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) ikastaroetan parte hartzeko dirulaguntzak ere ema-

ten ditu Udalak. Kasu horretan, matrikularen eta egoitza-gastuen %80 jaso daitezke. Izena emateko orria, programa eta matrikularen egiaztagiria aurkeztu beharko ditu eskaera egiteko.

### LINGUISTIKA ETA BESTE

Eta hirugarrenik, linguistika, soziolinguistika eta glotodidaktika plangintzen gaineko ikastaroak edo mintegiak antolatzen dituzten dirulaguntzak ere ematen ditu Udalak. Kasu horretan ere, %80ko laguntza eskura daiteke. Izena emateko orria, programa eta matrikularen egiaztagiria aurkeztu beharko ditu eskatzaileak.

*Euskaltegietan edo UEUn ikastearren edo linguistika ikastaroengatik laguntzen du Udalak*

*Hiru kasuetan, kostuaren %80 ordainduko dio Udalak laguntza eskatzen duenari*

## LABUR

### Iker Agirrek gaur kanporaketa du, Bagare lehiaketan

Bagare bertsolari lehiaketan parte hartzen dute Gasteizen ikasten duten Euskal Herri osoko bertsolariek eta Arabako bertsolariek. Lehiaketa berezia da, kantatzeko moduari edo doinuari garrantzi berezia ematen diolako.

Aramaiokoak arabarrak izanik, herriko bertsolarien ordezkari ere bada Bagare txapelketan. Hain zuzen ere, Andere Arriolabengoak eta Iker Agirrek parte hartu dute; eta oraingoz, Iker Agirrek lortu du lehiaketan aurrera egitea. Hain zuzen ere, gaur, barikua, Bitorianon (Murgia ondoan) hirugarren kanporaketa jokatu beharko du beste bost bertsolariren kontra. Kanporaketa horretan, bestelakoetan moduan, puntu gehien lortzen dituzten lehenengo bertsolari biek lortuko dute finalerako txartela. Besteak beste, zera egin beharko dute: agurra, zortziko nagusian hiruna bertso, zortziko txikian beste hiru bertso eta bakarkako saioa. Lierni Altuna aramaioarra izango dute gaia jartzen. Gaurko saioa 20:30ean hasiko da, Bitorianoko elkartearen.

Eta finala bera datorren astean jokatu dute, abenduaren 1ean, Gasteizko Roman Bajo ikastetxean, 19:00etan.

### Antzerki saioa Zigoitian: La Patro Teatro taldea

Talde horrek *Lección de orgasmo* antzezlan egingo du. Sexuaren gaineko argibideak emango dituzte, irakasle baten eskutik. Helduendako antzezlan da eta espainolez egingo dute. 20:00etan hasiko da.

Bestalde, datorren abenduaren 2rako iragarri dute *La lentejuela excéntrica* lana, Dibergente Kukurabar Teatro antzerki taldearekin. Kabaret konpainia baten gaineko istorioa kontatuko dute. 20:00etan hasiko da antzezlan eta espainolez izango da.

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaizua (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zubiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

**AUTOBUSORDUTEGIA**

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

**OHARRA:** izartxoak duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

**OHARRAK**

**BARIKUKO ZINEMA**

Tim Burton zuzendariaren *Charlie y la fábrica de chocolate* komedia emango dute, 22:00etan, euro baten truke. 116 minutu ditu film horrek. 2004koa da, eta, bestelakoan artean, Johnny Deep, Freddie Highmore eta David Kelly aktoreek parte hartzen dute.

**ZERGAK ORDAINTZEKO EPEA**

Ondasun Higiezinaren Gainerako Zergak (landa-lurrekin eta hiri-lurrekin lotutakoak) ordaintzeko borondatezko epea da azaroaren 28tik abenduaren 28ra. Kontu korrontea dutenei abenduaren 9an kobratuko dizkiete. Aipatutako epeak pasatu ostean zergak ordaindu ezean, %20ko gainkarguarekin kobratuko dituzte.

**ERRETIRATUENDAKO TXANGOIA**

Mendabiara (Nafarroa) bidaiari antolatuta dute. Abenduaren 16an izango da. Besteak beste, 08:30ean aterako dira eta 14:30ean iratxen bazkalduko dute. Joan nahi duenak abenduaren 1a baino lehen sartu beharko ditu 25 euro Vital Kutxan, Alaiak elkartearen kontuan.

# Ekimen ugari egiten dabilta eskolan; gaur jai izan dute, irakasle egunagatik

U.M.

Gaur, barikua, ospatu dute irakasleen eguna; atzo, eskolako gurasoekin batzar orokorra egin zuten; eguaztean, berriz, Gatzaga aldean ibili ziren; eta astelehenetik eguenera kontsumo lantegiak egin dituzte. Irudiotako argazkia bidali digute.

Argazkiko astaputza guraso batek hartu zuen, Albinan, eta eskolakoiei eman zien. Haiak eskolan zabaldu eta barrukoa ikusteko aprobetxatu zuten. Bestelakoan artean, kontatu digute bi kilo eta erdi pisatzen zuela perretxikoak.

**KONTSUMO LANTEGIAK**

Bestalde, azaroaren 27an San Jose de Calasanz eguna da, irakasleen zaindariarena. Baina egun hori domeka denez, aurreratu eta gaur izan dute jai eskolan.

Atzo, berriz, eskolako gurasoak batzar orokorra izatekotan ziren. Gai zerrendan aurreikusitakoaren arabera, besteak beste, 0 eta 2 urte arteko umeendako haurtzaindegia gainera informazioa helarazi eta webgunea aurkeztu zieten.



SAN MARTIN ESKOLA

Eskolako bigarren mailako ikasleak, Albinan aurkitutako astaputz erraldoiarekin.

takoaren arabera, besteak beste, 0 eta 2 urte arteko umeendako haurtzaindegia gainera informazioa helarazi eta webgunea aurkeztu zieten.

Horrez guztiaz gainera, oraingo astean beste bi ekimen izan dituzte ikasleek: batetik, kontsumoekin lotutako gaiak landu dituzte kontsumo lantegietan. Esa-

terako, ikasleei erakutsi diete jantzi-etiketako ikurrak irakurtzen eta gauzak birziklatzen.

Bestetik, eskualdea ezagutzeko ekimenean, Gatzaga izan dira.

# Gantzagarrak pozik daude aurtengo jaien arrakastarekin

U.M.

Gantzagako jaiak etorri bezain laster joan dira, baina gantzagarrek bi argazkiok bidali dizkigute, gainerako herritarrekin partekatzeko. Oro har, jaien gainera oso balorazio positiboa egin digute; batez ere, zirku lantegiei eta karta jokoei dagokienez.

Horrez gainera, aurtun, txirrindulari lasterketa berezia izan dute, Gantzagako 25. Txirrindulari Igoera egin dute-eta. Lasterketa horretan, lau txirrindulari saritu zituzten: irabazlea: Francisco Gutierrez zaldibartarra; auzoko lehenengoa: Aitor Errasti eta lehenengo gaztea: Aitor Azkarraga-Urizar. Horrez gainera, proba berezia antolatu zuten 25. urteurrenaren

rengatik: Urdungio baserrira igotzea. Proba horretan, bi txirrindulari bakarrik lortu zuten Urdungio baserrirako aldapa menderatzea. Bien artean lehenengoa izan zen Oier Garro.

**EKITALDI ARRAKASTATSUAK**

Bestelakoiei begiratuta, berriz, antolatzaileak oso gustura daude Txilipurditik Zirku Tailerrak izan-

dako arrakastarekin: "Zirku lantegia gazteendako nahi genuen, 11-15 urtekoendako-edo, baina azkenean guztiok parte hartu genuen eta oso-oso gustura ibili ginen".

Karta-jokoei ere arrakasta handia izan zutela kontatu digute eta kantu afarian oso ondo ibili zirela. Hala, oro har, auzoko jaien gainera oso balorazio positiboa egin dute gazteek, jaien antolatzaileek.



GANTZAGAKO GAZTEAK

Gantzagako gazteak auzoko San Millan ermitan, aurtengo jaietan.



GANTZAGAKO GAZTEAK

Unai Larrañaga eta Oier Garro Urdungio baserrirako igotzeran.

# Urratik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 25a / 29. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

## ELKARRIZKETA

LUIS MARI MURUA/EUSKALTELEKO ORDEZKARIA

### *“Zuntz optikoa iritsiko ez den lekuetan WiMAXek eskainiko du banda zabala”*

XABIER URTZELAI

**G**atzagan Internet behar den moduko konexioarekin erabili ahal izateko dagoen aukeretakoa bat da WiMAX sistema erabiltzea. Astelehenean egin zuten batzar informatiboa; gatzagar asko elkartu ziren kultura etxean.

**Sistema horren abantailen gainean berbetan hasi aurretik, komeni da azaltzea zer den WiMAX.**

WiMAX da banda zabala eduki ahal izateko dagoen teknologietako bat; hori da seinale bidez dagoen teknologia berrienetakoa. Esan dugu seinale bidez dabilela, eta horrek esan gura du ez dela kablerik behar. Kontratzen duenak errezeptore bat izango du etxean, seinalea jasoko duena.

**Eta gatzagarrek ze abantaila izango dute sistema berri horrekin?**

WiMAXi esker, herri txikietan lortuko dugu banda zabala edukitzea, konexio hobea izatea. Azken batean, herri handietara zuntz optikoaren bitartez iritsiko da banda zabala, baina landa eremuetara zuntz optikoa eramatea asko kostatzen denez, WiMAX da horretarako aukeratu den teknologia.

**Eta teknologia horrek Interneterako bakarrik balio du ala beste zerbitzu batzuk eskainiko ditu?**

Momentuz, jendeak Internet eta telefonia aukeratu ahal izango ditu. posible izango da biak batera izatea, edota Internet bakarrik aukeratzea. Ez dena posible izango da telefonia bakarrik kontratatzea. Eta aurreikusten dugu aurrera begira teknologia horrekin telebista ere iritsiko dela.

**Zenbat balio du WiMAX kontratatzea?**

Oinarritzko zerbitzua kontratatzeke 35,20 euro ordaindu behar dira hilean. Horren barruan egongo dira Internet eta telefonia zerbitzuak. Kontuan hartu behar da, baita ere, seinalea jasotzeko apa-



XABIER URTZELAI

*“Jaurlaritzak dirulaguntzak ematen ditu herritarrek kuota baino ez ordaintzeko”*

ratua behar dela, errezeptorea; eta ordenagailu bakoitzarendako modema edo routera ere behar da. Baina bi aparailu horiek eta instalazioa debalde jartzeko Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza ematen du. Horrenbestez, erabiltzaileak hileko kuota bakarrik ordaindu beharko du.

**Zelako harrera izan duzue Gatzagan?**

Oso pozik geratu gara. Astelehenean jende asko gerturatu zen batzarrerara, eta dagoeneko 20 lagunek eman dute informazio gehia-

*“Momentuz, jendeak Internet eta telefonia aukeratu ahal izango ditu; telebista, aurrerago”*


go jasotzeko izena.

**Egia da, baina, Gatzagako hainbat lekutara ez dela seinalea iritsiko.**

Egia da, bai. Baina ez du esan gura konponbiderik ez duenik. Orain lehenengo fasean gaude, eta bigarren fasean ahalegindu egin beharko dugu seinale barik gertzen diren lekuetara iristen.

**Baiezta ematen dutenek noiz jasoko dute seinale hori?**

Baiezta eman eta hiru hilabete behar dira tramitazioa egiteko. Otsail inguruan.



JOSE MARI FERNANDEZ


Gatzagako pilotari gaztetxoak, joan den astean.

## Asteburuko gaztetxoek pilota txapelketa atzeratu egin dute

X.U.

Mauri Zubillagarekin izan gara berbetan, Jose Inazio Belokirekin batera gaztetxoek pilota txapelketa antolatu gura zuelako oraingo asteburuan Gatzagan. Maurik esan digu, baina, eguraldi iragarpena ikusita erabaki dutela txapelketa hori atzeratzea: “Aurrekoan komentatu zidan kultura zinegotziak horrelako zerbait egiteko, eta Belokirekin ere tratua daukat. Gainera,

Gatzagan bizi izan nintzen hainbat urtez, eta badut lotura. Kontua da, Gatzagan badagoela gaztetxo talde bat pilotan dabilena, eta zaletasun hori bultzatzeko erabaki genuen Arrasateko pilotari gazteekin batera txapelketa bat antolatzea. Esaten dutenez asteburuan eguraldi txarra egingo du, eta horregatik erabaki dugu txapelketa atzeratzea. Pilotalekú itxia balitz egin ahal izango genuke zerbait, baina egingo duen giroarekin...”



## ‘Asteburu bat Euskal Herrian’

Izenburu hori jarri diote abenduan KZgunean egingo duten ikastaroari. Euskal Herrian zer bisitatu, jatetxeak, aterpetxeak, hotelak eta horrelakoak nola bilatu, edozein ikuskizun ikusi ahal izateko sarrerak nola eskuratu... Abenduaren 19an egingo dute ikastaro hori, 17:00etatik 19:00etara. / X.U.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

# Gremioen Gida



RADIO  
ELECTRICIDAD  
LEGAZPIA

**"R.E.L.E."**  
Gotzon Beitia Lazkano

ESKORIATZA

Denda:  
Santa Ana 17, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65  
Tailerra:  
Santa Ana 12, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

AITZORROTZ  
elektronika

- Tebista, audio eta bideo salmenta
- Atezin automatikoak
- eta konponketa
- Antena kolektiboak
- Instalazio elektrikoak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10  
Otalora, 14 ARETXABALETA

Hnos. SAJERAS, C.B.



Margogintza  
Dekorativo eta Industrial

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA  
Tel.-Faxa: 943 71 47 28  
Arrasate Tel.: 943 77 16 66  
Poltsikokoa: 608 92 11 18

**FRIXI** Eraikuntzak

Hormigoizko estruktura,  
urbanizazio, kontrata  
eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 ESKORIATZA  
Tel. eta faxa: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22



Jon Axpe Oyanguren

**OYANGUREN**  
Iturgintza

Aranburuzabala 15  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 47 14  
606 007 369  
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Peetrolio-produktuak
- limatizazioa

**L. GONZALEZ**

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6  
ARETXABALETA  
686 113 581

**ARETXARGI**

Modesto ROMEO  
Aretxargi@euskalnet.net

BELORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA

943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK



Instalazioen mantenu osoa  
Berokuntza • Gasa  
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.  
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

**J.J. ITURGINTZA**  
**IRURE**

URA  
GASA  
KALEFAKZIOA



MITARTE 15  
ARETXABALETA

943 793 187




Basabe poligonoa D-2-1  
117 posta kutxa  
ARETXABALETA  
Telefonoa eta faxa:  
943 79 78 45  
Poltsikokoa:  
616 96 57 98

**ARETXABALETA**  
**ITURGINTZA**

Durana, 16-Tel.: 79 17 53  
ARETXABALETA

Zure lanak  
iragartzeko  
lekurik  
aproposena

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatze sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Loreontzi-euskarriak, balkonerak, eta abar.



## TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU

- Etenik gabeko programazioa
- Informatiboak orduoro
- Programazio berria

### BERRIKUNTZAK:

- **PROGRAMAZIOA**  
Etenik gabeko programazioa  
(13:15 / 00:15)
- **INFORMATIBOAK**  
Orduoro eta inor baino lehenago  
(laurden gutxi guztietan)

### SAIO BERRIAK:

- **16 MM:** Film laburren saioa
- **MOTZEAN:** Herritarrei elkarrizketak
- **DIDJERIDU:** Gazteendako saioa



**Ikustekoa!**